



ASTEIZ GEU

78. zk.
1999ko
ekaina

GEU elkartearen babesarekin



FRANKEO ITUNDUA 48/27



Uztaz uzta, alez ale. ARABA EUSKARAZ BLAI
EKAINAREN 20an LAPUEBLA DE LABARKAN



Euskararen erabileraren bidea jorratuz

Behin baino gehiagotan entzun izan dugu hainbat euskaltzaleren ahotik euskararen erabileraz dagoen kezka bizia: "Bai, egia da -diote-euskal eredueta gero eta ume gehiagok ikasten dutela, baina nahikoa ote da klaseak euskaraz ematea gero ume horiek beren harremanetan komunikazio tresna bizi gisa erabil dezaten?" Edo, "Nola piztu beraian gogoa gelan ikasteko ez ezik, lagunarteko giroan ere euskaraz balia daitezen?".

Gu ere gai horretaz kezkatutik, duela hiru urte inguru hainbat ikastola publikotako ordezkariak biltzen hasi ginenean geure txokotik irten eta koordinazio maila egonkorra lortze aldera, konturatu ginen, tokian tokiko beharrak hartara bultzatutik, ordurako hainbat ikastetxetan Euskararen Astea gisako ekintzak antolatzen zirela. Beraz, jadanik egiten zen lan hori aurrerantzean nor bere kasa ibili barik, denok elkarlanean eramateko konpromisoa hartu genuen Euskararen Jaia jarrita aste horren gailur.

Egitasmo hau mamitzerakoan jorraturiko alorren artean, labur-zurrean, hauexek nabarmenduko nituzke.

Lehendabizi, oso garrantzitsua izan da ongi finkatzea zein den egitasmo guztiaren ardatza, alegia, irudi motibatzaile edo pizgarri nagusia poliki aztertu eta zehaztea; izan ere, ez dugu aiantzi behar 3-12 urte bitarteko umeak izanik adin honetan irudimenak eta fantasiak izugarritzko indarra dutela. Argigarria da, horretaz, W. Shakespeare-ren Rikardo III.ari buruzko filme baten hitzaurrean adierazitakoa: "Munduari Historia, gutunak poesiarik gabe, liliak lurrin barik edo pentsamenduak irudimen gabarik gisara, ikasgai lehorra litzateke bere elezaharrak kontuan hartu ezean. Hauetariko askok, nahiz eta gezurrezkoak direla frogatu, merezi dute gordeak izatea". Gure kasuan ere funtsezkoa izan da, euskal ondare kulturean oinarrituta, maskota eta honen inguruan ipuin zein kanta erakargarriak sortzea (duela bi urte Mitxarroa, iaz Mari eta aurtan Bagare Jentila). Langite horretan, askoren iritzi eta aholkuez gainera, arte munduko profesional adituen laguntza azpimarratuko nuke.

Bigarrenik, goiko ardatz horretatik eratorritako lortu sorta zabal baten antzera, Euskararen Astean ikastetxe publikoetan gauzatu diren ariketa eta ekintza

ugarri. Esaterako, zentru bakoitzean maila bakoitzera-ko egokiro gertaturiko ariketa eta ekintza ugari edo ikastetxetako ordezkariak elkarrekin prestaturiko unitate didaktiko bereziak. Izan ere, klaustro bakoitzak gogo beror egindako lan hori ezinbesteko baldintza da helburuak lortuko badira. Halaxe gertatu da eta halaxe aitortu behar diegu: egitasmo hau guztia aurrera eramanez izana euren meritua da, hein handi batean bederen.

Beste giltzarri bat gurasoen koordinazioa litzateke: hainbat ikastola eta eskola publikotako ordezkari kurtsuan zehar maiztasunez biltzea hari guztiak ongi josteko. Buruturiko eginkizunetatik azpimarratzekoak dira: alde batetik, ildo nagusiak ezartzea (ardatza, datak, goiburuak, ekitaldi-motak, ekintza osagarriak, egitaraua... aztertu eta finkatu), guraso-elkarte guztiak koordinatzea, kudeatze lana (diru-laguntzak eskatu, baimenak lortu, etab), proiektu hau gizarteratzea (erakunde eta komunikabideekiko harremanak...). Hone-tan, Denon Eskola Arabako Guraso Elkarte, bere teknikariak barne, baliatu dugu azpiegitura gisa.

Azkenik, Gasteiz mailan antolaturiko ekitaldiak edo jaiak, hauek aurrez eskolan landutako amaiera egoki gisa ulertzen ditugularik. Helburua da umeek ikustea eskolan landu duten horrek baduela jarraipena kalean ere, eta gainera ez direla bere ikastetxeak soilik hori egin dutenak, baizik eta ehundaka eta milaka kide direla denak batera euskararen alde lanean dihardutenak.

Merezi izan al du? Guk, egiatan, uste dugu baietz. Egunero euskararen erabileran orokorrean nabarmendu den gorakadaz gainera, badago datu oso esanguratsua: duela hiru urte 9 ikastetxe hasi baginen, iaz 13 izan ginen, eta aurtan 19 izatera iritsi gara, bitartean inor erretiratu ez delarik. Jakinaren gainean gaude euskara ezagutze hutsetik mintzaira horretan aritzera badagoela jauzia, are gehiago gurea bezalako ingurune gehienbat erdaldunean, eta gure iharduera hauek ez direla erabateko konponbidea. Aitzitik, eztabaida honek zabalik dirau eta prest gaude ideia, ekarpen eta proposamen berriak, hala nola kritikak, jasotzeko eta aztertzeko. Beraz, okerrak baztertu, ondo eginda-koak gogoan hartu eta... segi aurrera!

Naturaren isladak



LERTXUN GORRIA (*Ardea purpurea*)



Araba eta Errioxa arteko mugan izango da zita, Lapuebla de Labarkan, ekainaren 20an. Euskaltzaleon topagune bihurtuko da egun batez Ebro ertzeko herri hau, euskarari eta "Assa" Ikastolari bultzada emateko helburuarekin. Araba Euskaraz 99 gain-gainean dugu eta abestiak dioen bezala "Uztaz uztaz, aiez ale, euskaraz mugarik gabe...", Arabako hegoalderantz joateko aitzakia ederra izango dugu aurki.



Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Gasteizko Udala
Kultura Saila



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

AURKIBIDEA

4.orr

*Geu Azoka,
Termometroa..*

6.orr



Laburretan

9.orr




*GEUrekin
Mendira*

10.orr

*Kalea Mintzo.
Turistak...*

11.orr



*Araba
Euskaraz*

15.orr

*Gasteizko Katedraleak.
Artea.*

17.orr

PITI-PATA aldizkaritxo



20.orr

*Kaleko izendegi
berria*

24.orr

*Kirolak.
Maider Unda eta Juan Vallejo.*

27.orr



*Musika.
Dinky Dau*

32.orr

*Kultur
Ajenda*

33.orr

*Postontzia:
Euskarazko Irakaskuntza*

Geu Gasteiz, Gasteizko Euskaldunon hilabetekaria

Erredakzioa: Pedro Asua, 2 - 3.a · Telefonoa eta Faxe: 945 22 21 53

Zuzendaria: Estitxu Breñas Glz. de Zarate. **Erredakzio-batzordea:** Leire Lopez de Aberasturi, Edorta Sanz, Karlos Fdz. de Betoño eta Estitxu Breñas. **Erredakzioa:** Leire Lopez de Aberasturi, Ismael Diaz de Mendibil, Txabi Arnal-Gil, Itziar Uriarte, Edurne Begiristain.

Argazkiak: Edorta Sanz. **Maketa:** Izadi Editoriala. **Komikia:** Iñigo Sarasola.

Naturaren Isladak: Conrado Tejado. **Kolaboratzaileak:** Inaxio Eizaguirre Portillo, J.A. Gainzarain.

Publizitatea: Karlos Fdz. de Betoño. **Banaketa arduraduna:** Txipi Ormaetxea.

Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) · Ale Kopurua: 2.500 · LG: VI-582/92 · ISSN: 1133-0988 · Frankeo Itundua 48/27 zenb. Aldizkari hau paper ekologikoz egin da. Geu Gasteiz hilabetekariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzunkizunik.

PREMAZKO TELEFONOAK

S.O.S. DEIAK:

.....945 112

UDALZAIINGOA:

.....945 092

INFORMAZIOA:

.....945 010

SUHILTZAILEAK:

.....945 16 11 11

GURUTZE GORRIA:

.....945 22 22 22

D.Y.A.:

.....945 28 10 20

ERIETXEETAKO URGENTZIAK:

.....945 24 44 44

AUTOBUS GELTOKIA:

.....945 25 84 00

RENFE:

.....945 23 02 02

AIREPORTUA:

.....945 16 35 91

ERREPIDEETAKO INFORMAZIOA:

.....945 28 20 00

HIRI-BABESA:

.....945 16 11 61

UDALETXEA:

.....945 16 11 00

FORU ALDUNDIA:

.....945 18 18 18



Kan Groak

Haurrak zaintzen ditugu

GOIZEZ

Nekane	945 26 91 53
Eduardo	945 14 21 99
Leire	945 27 32 81
Lorena	945 27 10 13
Ainara	945 24 04 42
Ana	945 26 65 95
Eriete	945 29 96 50
Estitxu	945 27 65 07

Idoia	945 24 47 79
Lorena	945 27 10 13
Montse	945 26 78 12
Ainara	945 23 38 28
Txaro	945 28 08 85
Maidar	945 24 90 62
Arrate	945 25 64 01
Patrizia	945 13 93 37
Uxue	945 24 37 11

ARRATSALDEZ

Oihana	945 25 30 35
Aintzane	945 27 09 64
Iratxe	945 24 51 81
Ainara	945 23 38 28
Lorena	945 27 10 13
Patrizia	945 27 78 19
Leire	945 23 12 23
Maidar	945 24 90 62
Estitxu	945 27 65 07

ASTEBURUAN


Olatz	945 25 61 20
Montse	945 26 78 12
Arrate	945 25 64 01
Patrizia	945 13 93 37
Leire	945 23 12 23
Jose Angel	945 27 62 14
Saida	945 26 58 05
Idoia	945 24 47 79
Maidar	945 24 90 62
Belen	945 13 65 10
Monika	945 13 86 21
Itziar	945 13 86 21
M. Jesus	945 13 54 35
Estitxu	945 25 99 60

GAUEZ

Esther	945 27 84 57
--------	--------------

Geu Gasteiz ez du sail honetan sortzen diren harremanen ardurarik hartzen

HOZKAILUA



Araba Arenan euskararik ez

ACREDITACIONES
VIPS
PRENSA
JUGADORES

Ireki berri duten Araba Arena Pabilioiaren karteletan euskararik ez da inondik agertzen.

Iñigo Kastresanak bidalitako argazkietan ikus dezakezuenek bakarrik gaztelaniaz daude. "Araba pabilioia" lehen, "Araba Arena" orain; "Alava Arena" izango ote da hurrengoa? "Jokalaria", "prentsa"..., hainbesterako al da? Errespetatzen ditugun hizkuntzak, errespetatzen dezagun kultura, errespetatzen dezagun EUSKARA!

E. B. Z.

OLARIZU MENDI

HERRIKO TABERNA

JOSE URUÑUELA
KALEAN

GASTEIZKO

IRUBIDE

RAMIRO DE MAEZTU
KALEAN

HERRIKO TABERNA

ALDE ZAHARRA

"SAN FRANCISCO JAVIER" KANTOIAN

FOTONOTIZIA

Barçakoak Champions

Bartzelona taldeak bigarren urtez jarraian liga txapelketa lortu zuen. Zoritxarrez Gasteizen erabaki zen aurtengoa, eta orain Alavesek mailari eutsi behar dio Athletic eta Errealaren kontrako partiduetan. Hori destinua!



Edorta Sanz

Geu-Azoka

Agurrak, saldu edo erosi nahi duzuna... idatzi postaz: Pedro Asua, 2. 3.a faxa. 22 21 53

SALMENTAK

Euskarazko hiztegia, Hiztegia 2000, salgai daukat. Batere erabili gabea dago, berri-berria. 2.000 ptan saltzen dut, dendetan 3.000 pta. balio du. Tf.: 945 28 10 67

Paseoko bizikleta salgai. TREK markakoa, SIS shimano kanbioak; 18 abiadura; bost urte dauzka eta egoera onean dago. Prezio erdian saltzen dut. 28.000 ptan. Tf.: 945 28 10 67.

CENTON markako tripodea salgai. Oso handua eta sendoa da, ia batere erabili gabea. Berri berria dago, pol-tsa eta guzti. 8.000 pta. Nire beharretarako gehiegi delako saltzen dut. Tf.: 945 28 10 67

CANON 1000 F bi objektiborekin 35-80mm / 80-200 mm salgai. Oso modernoa aukera askorekin. Oso ondo dago, kutiziagatik

aldatu nahi dut. 40.000 pta. Tf.: 945 28 10 67

Antzinako txanponen bilduma saltzen dut, baita gehiago ere. Mende honetakoak eta nazio anitzekoak ere badauzkat. - 945 14 54 90

Lanpara bat dut salgai sarreran ipintzen den kristaltxo asko duen horietako dotore bat. Oso ona da. 945 22 73 03 Maite

Aktiboan dagoen harategia alokatzen da. Esparru zabala da eta ondo prestatuta dago. 945 24 08 65 Ana

DEIAK

Ohiko osasun sistemak asetzen ez bazaituzte, zatoz Sumendi osasunaren autogestioaren aldeko elkartera 945 22 65 03

Ez hago bakarrik!! Hator Gay-tasunara. Informazioa, hitzaldiak eta eztabaidak, psikologi, sexologi eta lege aholkularitza... Bilerak asteazkenero. 945 25 77 66

Esperanto Elkarte. Hizkuntza txikiak maite ditugulako, esperantoz mintzatzen gara. Zapatari kalea, 29 alokatzen dut

BESTEAK

Umezain euskalduna behar da Gasteizko Lasarten. Interesatuak deitu 945 147 417 telefonora 15:00etatik aurrera.

Datorren ikasturtean ume bat zain-tzeko pertsona bat behar dut, orduren batean goizez eta ordu batzuetan arratsalde. Maite. 945 22 73 03

Bilbora edo Galdakaora egunero joaten den pertsona baten bila nabil gastuak konpartitzeko. 945 24 92 36

2. D.B.H.ko matematika eta ingelesa euskaraz ematen dituen irakaslea behar da martxotik irailera, oinarritik hasteko. Maribel, 945 172 850.

estilorik *handiena*
edozein *ikuspegitatik*

Goza ezazu eguzkitako
bataurrekoen moda osoaz.
Eta orain, eguzkitako
bataurreko
graduatuak... **8.900 pta.**
tik aurrera.

ZERBITZU
OPTIKOETAN
1a

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

Larunbat arratsalde zabalik Andre Maria Pzan:
5.00 - 8.30



www.multiplicas.com
Berezkoaren arretarako telefonoa: 900 34 35 36.

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

Kosovarrak Araban

Gerra dela eta Kosovotik irten behar izan duten 40 bat lagun iritsiko dira Gasteizera ekainaren 15ean. Belgrad-etik agindutako garbiketa etnikoak kosovarrek jaioterria uztea eragin zuenean Eusko Jaurlaritzak eta Arabako Aldundian errefuxiatuak hartzera prest zeudela adierazi zioten Madrilgo Gobernuari. Hori dela eta egun Avilan dauden 100etik gorako kosovarren taldeko batzuk (40-50 inguru) Arabara helduko da printzipioz urtea amaitu arte egoteko, eta Aldundiak egindako eskaintzaren arabera, beharrezkoa izan arte.

Diputazioarekin elkarlanean arituko den Gobernu Kanpoko Erakunde batek kudeatuko du giza talde honi eman beharreko laguntza. Atentzio plana zehazteke dago, oraindik ez baita zehaztu urte erdiz Apaiztegia etxetzat izango duen taldearen ezaugarriak; familiak, gazteak edo zaharrak etorriko diren, alegia.

Zehaztasunen zain, haurrentzako eskolartze plana eta emakumeentzako ekintza bereziak prestatzen ari dira. Diputazioak itzultzaile bat kontratatu du dagoeneko eta beste bi lortu nahi ditu beraiek

heldu baino lehen. Arabako erakundeek zortzi milioi pezeta jarri beharko dituzte 40 kosovarren egonaldiaren baldintzak bermatzeko.

Gero eta edarizale gazteagoak

Gasteizko Udalak droga legal eta ilegalen kontsumoari buruzko ikerketa egin du 18 eta 70 urte bitarteko hiritarren artean. Droga legalei buruzko datuetan

94. urteko datuekin konparatuta tabako erretzaile gutxiago dagoela dio ikerketak, nahiz eta asteburuetan kontsumoak dexente egiten duen gora. Alkoholikoen kopuruak ere behera egin du, asteburuetan asko edaten dutenak gero eta gehiago badira ere.

Legalak ez diren drogei buruz, duela urte batzuetan nabaritzen hasi zen tendentziak jarraitzen duela ematen du, heroina kontsumoak behera eta kannabisekoak gora egin baitute. 30 urte baino gazteagoen artean %30ak porruak erretzen ditu.

Datu guztiak aztertuta, Udal teknikoen ustez kezkarria da neska mutilak gero eta gazteago hasten direla alkohola edaten eta drogen kontsumoak aisialdiarekin lotzen dela da. Hau da, gazteek ondo pasatzeko helburuarekin hartzen dituztela alkohol, tabakoa eta porruak.

• 8812 •

8.812 etxebizitza hutsik dago Gasteizen EUSTATEk egindako ikerketak erakutsi eta arazoarekin kezkatuta dagoen kolektibo batek plazaratu duenez. Zehazkiago esateko 8.812 etxebizitza baino gehiago dira Gasteizen utzik dauden pisuak, EUSTATEn azterketa duela hiru urtekoa delako eta denbora tarte horretan kopuruak gora egingo zuela pentsatu behar da.

Hiriko kaleak 8812 dioten karteletz bete zituen taldeak, horien esanahiari buruzko zer esan eta zurrumurru ugari sortuz. Kanpainaren helburua etxebizitzaren inguruko arazoari buruzko eztaba piztea da.

Ekimenaren bultzatzaileek etxeak eraiki eraikitzen direla onartu zuten, asko gainera, baina ez dira dagoeneko bukatuta eta hutsik daudenak behar dutenen artean banatzen. Horretaz gain, gazteek pairatzen dituzten lan baldintza kaskarrak eta langabezia dela eta, gehienek babes ofizialeko etxebizitzarik merkeena ordaintzeko haina ere ez dutela salatu zuten taldeko ordezkariak.

Udal Gobernu bera eta espekulazio basatia dirua irabazteko erabili duten etxegintza alorreko enpresak dira taldearen ustez egoeraren errudun nagusiak.

Etxebizitzaren arazoaren kezkak bultzaturik sortutako taldeak mahainguru bat prestatu du zer esanik duten sektore eta agente guztiak biltzeko asmoz. Mahaingurua ekainaren 22an izango da.

TXUSTAT
TABERNA

ESPEZIALITATEA:

BAT ERE EZ

Mateo Moraza kalea GASTEIZ

Xabier
taberna

musika ona
eta giro ezin hobea

Aitzogile kalea (KUTXI), 23



e
g
u
n
e
k
o
m
e
n
u
a



Autobusak

txartelez ordaindu

Amaitu berri den hilean Gasteizko autobusak kreditu txartel berriekin ordaintzen hasteko azpiegitura ezarri dute TUVISAko arduradunek. Dagoeneko autobusek txartelak onartuko dituzten makinatxoak jarrita dute eta horien erabilera erraztu eta azaltzen dituzten monitoreak dabiltz txandaka ibilbide ezberdinetan jendeari irakasten. TUVISAk 40 milioi pezetako inbertsioa egin behar izan du ordainketa era berria posible egiteko.

Erabil daitezkeen kreditu txartelak Vital Kutxa eta Euskadiko Kutxarenak dira eta izatez doanezkoak dira. Diruz hornitzeko, rekargatzeko, bi finantz entitate horietara edo kutxazain automatikoetara jo beharko da.

Egun autobusetarako erabiltzea posible bada, denbora jakin batean telefono eta parkimetroetan ere erabiltzeko bidea jarriko da.

Txakur jabeentzako isunak

Ekainaren 14tik aurrera txakurren gorotzak ez jasotzeagatik onartutako isunak sartuko dira indarrean. Isunak 5.000 eta 15.000 pezeta bitartekoak izango dira. Zigorak indarrean sartu baino lehen arautegia ezagutarazteko eta kontzientzia sortzeko kanpainia aurrera eraman du Udalak. Bi asteetan zehar eta ekainaren 2a arte monitoreak egon dira Gasteizko parkeetan txakurren jabeek onartu berria den arautegiaren nondik norakoak azaltzen duten foiletoak eta gorotza jasotzeko 2.000 bat poltsa banatzeko.

Udalaren arduradunek azaldu zutenez, 12.000 kilo txakur gorozki jaso zituzten iaz, 1998an, udal garbitzaileek.



Udalak banatutako foiletoetan txakurrei mikrotxipa ezarri beharra gogoratzen da eta txakurren garbiketa eta kontrolaren inguruko azalpenak ematen ditu. Kanpainaren leloak jabea txakurraren ohituren ardura duela azpimarratzen du.

Animaleen jabetza eta babeserako ordenantzak txakurrekin zerikusia duten beste hainbat gai arautzen ditu, nahiz eta horiei horrenbesteko oihartzuna ez duten izan: animalien ongizateari dagozkionak hain zuzen, txakurren borroak, tratu txarrak, ...

LIBURUDENDA

axular



Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ

MARRAZKIAK • KOADROAK

MOLDURAK

LAMINAK

zurbeltz

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20

Arte Ederretako museoa, ITXITA

Augusti Jauregian kokatuta dagoen Arte Ederretako museoa itxita egongo da datozen sei hilabeteetan bertan egingo diren berrikuntza lanak burutu ahal izateko. 1912an eraiki zen jauregiak hainbat hobekuntza lan behar ditu arte lanak behar den moduan gorde eta erakusteko eta bisitariak hartzeko.

Sei hilabeteetan zehar hezetasun arazoak eta itoginak konpondu, zurezko zoru berria jarri, teilatua guztiz eraberritu eta garbiketa orokorra egingo da. Horretaz gain, akzesibitate lege berrietara egokitzeko hainbat aldaketa egingo dira, igogailu berria ezartzea besteak beste.

Museoa itxita egongo den denbora bere baitan dauden bilduma ezberdinak berrikatzen emango dute teknikoei. Izan ere, katedrale berrian kokatu den museora erligioarekin zerikusia duten lanak eraman dira eta Arte Garaikideko museoa zabaltzen denean beste bilduma handi bat ere hara eramango da.

Sei hilabete horietan zehar, hala ere, normalean Augusti jauregian dauden lanak ikusteko aukera izango da, Amarika aretoan erakusketak egiteko asmoa baitute Diputazioko arduradunek.



AlokairU SozialaK

Alokatzeko egindako lehenengo babes ofizialeko etxebizitzak banatu ditu Gasteizen Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak. Urbasa Mendia eta Orreaga kaleetan kokaturik dauden 99 etxebizitza banatu zitzaizen maiatzaren 12an hasita martxoan egindako zozketan pisua egokitu zitzaiei.

99 pisu horiek 45 eta 88 m2 bitartekoak dira, logela bakarra edota lau logeladunak, eta hileroko alokairuaren prezioa 15.950 eta 28.525 pezeta artekoa da. Hasiera batean alokairu kontratua bost urteetarako da, baina harremana luzatzeko

aukera izango da, baldin eta maizterren egoera ekonomikoak hasiera batean eskatutako baldintzak oraindik ere betetzen badira. Jaurlaritzak jakitera eman duenez, erosketarako aukera ematen duen alokatze sistema berezia ezartzeko modua aztertzen ari dira. Alokatzeko etxebizitza sozial gehiago aterako dira Gasteizen, Lakuan eta Abetxukon, hain zuzen, baina momentuz ez da horien banaketarako datarik jarri.

Bai Euskarari

Hego Euskal Herriko 600 elkarte, enpresa, entitate eta agentek berretsi zuten maiatzaren 18an iragan urte amaieran sinatutako Bai Euskarari kanpainarekin konpromisoa. Sinadura Hegoaldeko lau hiriburuetan egin zen, Gasteizen Miñako parkean, Donostian Miramonen, Bilbon Euskalduna Jauregian eta Iruñean planetariumean.

Gasteizen bildutakoen artean sindikatu eta alderdi politiko, enpresa, elkarte profesional, kirol elkarte eta komunikabideetako ordezkariak egon ziren. Sinatzaileek abenduaren 23an sinatutako Bai Euskarari kanpainari emandako atxikimendua berrestez gain, Kontseiluak euskararen normalkuntzarako martxan jarriko duen plangintzari laguntza emateko konpromisoa hartu zuten.

Bideoak lotu zituen lau hiriburuetan bildutakoak ekitaldi guztia jarraitu ahal izateko. Pedro Miguel Etxenike, EHUKo irakasleak eman zion hasiera ekitaldiari eta amaiera berriz hiriburuetako lau futbol taldeen presidente edo ordezkarien esku egon zen.

Gaiari hel diezaiozun

Gazteei zuzendutako sexualitateari buruzko jardunaldiak antolatu dituzte Gasteizko hamar taldek. Helburua sexualitatea gizakiaren berezko ezaugarria dela adieraztea da, guztiokin bat doana. Sexualitatea eta gazteei buruzko jardunaldiak, 'Gaiari heldu diezaiozu' lelopean, gaiari osotasunean heldu nahi dio. Antolatzaileen ustez sexua eta sexualitateari buruzko mezu kontraesankorrak jasotzen dituzte gazteek komunikabideetatik batez ere. Eta hedabideek errealitatearekin zerikusi handiegirik ez duen eredu estereotipatua zabaltzen badute, familian eta eskolan egindako lana ere garrantzitsua dela uste dute antolatzaileen artean dagoen Emaize kolektibokoek.

Jardunaldien barruan zortzi hitzaldi egongo dira, non adituek, -sexologo, idazle,...- sexua izango baitute hizpide, beraiaien esperientziari buruzko azalpenak ere emanez. Horretaz gain, zine eta antzerki ziklo bana egongo da; kontzertuak, erakusketak eta ipuin erotikoen lehiaketa prestatu dute antolatzaileek Gasteizko Udalaren babesarekin.



Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25

Bacalao Giraldo

- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta
erosotasuna zure esku"



Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbeia Merkatua - Zaldian plaza • GASTEIZ

Turismoa Gasteizen

- 1.- Zure ustez zerk motibatzen ditu turistak Gasteiz bisitatzera?
- 2.- Zer hobetu beharko litzateke turistak erakartzeko?



Mª Basilia Aguirre. Etxeko andrea.

1.- Gehien bat Bilbo edo Donostia bisitatzera joan direnak hurbiltzen dira Gasteiza. Hala ere Gasteizek ere baditu bere alderdi erakargarriak ere: alde zaharra, katedralak...

2.- Gasteizek oraindik asko du hobetzeko: hiri garbia da baina udaletxeak egiten duenaz gain hiritarrok ere gure aldetik zertxobait gehiago jarriko bagenu askoz ere hobeto egongo litzateke.



Jose Julian Perez. Abokatua

1.- Gasteizek berez erakargarritasun handirik ez duen arren, hirigintza ona eta batez ere lasaitasun handia du. Honekin batera, Gasteizera datozen turistak nahi izanez gero inguruneak ezagutzeko aukera paregabea dute: Bilbo, Donostia, Errioxa...

2.- Hondartza eta Gaztelu izugarriak ez dugunez, alde arkitektonikotik begira, aproposa deritzot eraikuntza ezaugarritsuen bat eraikitzeari.



Izaskun Garcia. Ikaslea.

1.- Nik batez ere Gasteizera gonbidatzen ditudan lagunak bertan aurki dezaketen giro on eta hiri garbiagatik da. Kultura eta kirol aldetik begiratuta ere nahiko ondo dago.

2.- Mota guztietako ikuskizun gehiago ekarriko nituzke. Gainera beharrezkoa ikusten dut elementu enblematikoren bat jartzea.



Mikel Zarate. Ikaslea.

1.- Niri ingurugiroa asko gustatzen zaidanez, denak gonbidatuko nituzke Araban dauzkagun urtegi eta parke naturalak bisitatzera. Gasteizen bertan ere oso parke politak dauzkagu.

2.- Gasteizek festa gehiago behar ditu: honekin esan nahi dudana da kontzertuak eta kirol lehiaketa gehiago prestatu beharko liratekeela kanpotar jendea erakartzeko.



Antonio Maqueda. Jubilatua.

1.- Gasteiz hiri txikia denez, oso lasaia da. Ez dugu monumentu askorik, baina dauzkagunak oso politak dira.

2.- Orokorrean Gasteiz oso ondo dagoela uste dut. Hala ere zerbait esango nieke ibiltokietan zehar bizikletaz doazenei.



Loli Alonso. Etxeko andrea.

1.- Gasteiz denbora gutxian asko handitu den hiria da. Gauza polit ugari dauka: parkeak, lorategiak, eta abar, nahiz eta gu batzuetan dauzkagun gauza eder guztiez ez ohartu.

2.- Parkeak batzuetan zikin samar ikusten ditut. Honen aurka hiritar guztiok gure aldetik zerbait jarri beharko genuke.

XIXILU
JATETXEA

AMARIKA PLAZA, 2
Tfnoa: 945 23 00 68 - GASTEIZ

IRUSTA

poteo eta pintxoak

ESPEZIALITATEA:

Patata tortila • Otartekoak

TABERNA

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 945 23 19 33
GASTEIZ

Ekainaren 27an egingo dugu uda aurreko azken irteera hau, Gipuzkoa eta Nafarroa aldera. Agian, agian, eguraldiak lagunduko digu egun horretan, txango guziz bikaina izan dezagun! Gogoan dugu askok Aralarren egindako azken zeharkaldia eta Txindokiko igoera; ea, halako giroa suertatzen zaigun!

Hasteko, honetan ere autobusa izango dugu: berrogeita hamabost

Lizarrustitik Amezketara, Aralarren gaindi



Hirumugarrietako gailurrean aurkitu zuen Txipik onddo hau.

leku. Hirurogeita bost joan ginen iaz, ezinbestean autoz batzuek, eta zeharkaldia egin ordez, toki beretik igo eta jaitsi behar izan zuten horiek. Pena. Ez luke aurten halako "mendi-zale" kopuru izugarririk gertatu behar, baina ezin asmatu! Kontuz, hortaz! Tokia nahi duenak bestetan baino goizago ibili behar izango du: zortzi eta erdietan izango da irteera. Erne!

Oraingoan Lizarrustitik abiatuko gara eta Errenagako aterpetik pasaturik, Hirumugarrietara joko dugu. Intzeko Dorrea da mendi horren benetako izena eta Nafarroako lurretan dago. Aralarren dagoen gailurrik altuena da eta egun argia badugu, ia Euskal Herri osoa zabalduko zaigu begi azpian. Baietz Larrun ikusi! Eta Donostiako hondartzak!

Hortik atzera itzuli, eta Igaratzatik barna egingo dugu beherantz. Bide

Hirumugarrieta (1.430 m.)



Blanca, Kike eta Iñaki ibilbidea aztertzen.

Antolatzaileen taldea: makalenak ere iritsi ziren Hirumugarrietara.



luzea, Amezketaraino. Esan dezagun argi: ibilaldi hau ederra da baina luzetxoa ere bai. Astirik galdu gabe, sei bat ordu ibilki. Hortaz gain, bistan da, hamaiketako, edo beste pausaldiak kontuan hartuta, zortzi bat ordu segurki. Zailtasunaren aldetik, berriz, hasierako zatia da dorpeena, Lizarrustin hasten den aldapa, izerdi frango botatzeko modukoa. Ordu pare bat behar da Errenagaraino. Hortik aurrera, aldapa gutti. Eta gozamina, lasai.

Baliteke norbait bidean damutzea, haatik. Horrentzat pentsatua dugu ibilbide errazago hau: Hirumugarrietara igo beharrean Igaratzara joaten ahalko da taldekide nekatuta edo... eroso. Han geldi, eta besteak itzultzerakoan, batera egingo genuke Amezketaraino. Pare bat ordu laburtzen da txangoa gisa horretan.

Dena ez, baina inportanteena esana dago. Gainerakoa, ekainaren 27an etorriko denak ikusiko du. Eta ez zaio damutuko. Hori bai, aspaldiko esaerari eutsi: Mendira ogixe ta txamarrie eruen.

Maite Mendiburu

GEUREKIN MENDIRA

IRTEERA:

Goizeko zortzi eta erdietan, Prado kalean, Txapela tabernaren aurrean. Autobusez.

ITZULERA:

Zortzi-bederatziak aldera.

**Hirumugarrieta
(1.430 m.)**

Ekainaren 27an

ZERBAIT GEHIAGO JAKIN NAHI
IZANEZ GERO, DEITU TELEFONO
HONETARA: 945 28 23 16 (MAITE)

Araba eta Errioxa arteko mugan izango da zita, Lapuebla de Labarkan, ekainaren 20an. Euskaltzaleon topagune bihurtuko da egun batez Ebro ertzeko herri hau, euskarari eta "Assa" Ikastolari bultzada emateko helburuarekin. Araba Euskaraz 99 gain-gainean dugu eta abestiak dioen bezala "Uztaz uztaz, aiez ale, euskaraz mugarik gabe...", Arabako hegoalderantz joateko aitzakia ederra izango dugu aurki.



Mahastien arteko

ARABA EUSKARAZ

Lapuebla de Labarkan ospatuko da aurtengo Araba Euskaraz. "Uztaz uztaz, aiez ale", horixe da ekainaren 20rako hautatu duten lema, eta ondotxo laburtzen du Araba Euskaraz 99ko esanahia: uztak ikas-turtearen bukaera adierazten du, hots, kurtso osoan egindako lanaren fruitua. Aleak, aldiz, hoge herri desberdinetatik Lapueblara ikastera doazen ikasleak dira. Azken batean, ikasle hauei esker bizi baita Lapueblako ikastola. Lemak lotura handia dauka logotipo edo irudiarekin. Izan ere, Lapuebla de Labarkan eta, oro har, Arabako Errioxa guztian, mahastiek paisaiaren zati garrantzitsuak dira, eta logotipoaren



mahats-mordoan ageri diren aurpegi alaiek euskera ikasten diharduten gazteak irudikatu nahi dituzte.

Aurtengo Araba Euskarazko xede nagusia, orokorrean esanda, bakarra da: Lapueblako ikastola, Assa Ikastola, laguntzea. Baina helburu horren barruan hiru arlo desberdin bereiztu behar dira, alegia, Araba Euskarazen helburua hirutan banatu behar da: Assa Ikastolaren sustaiak ondo errotzea, berau erreferente kultural eta soziala bihurtzea eta ekonomikoki laguntzea.

Lehenagoari dagokionez, aipatu behar da Assa Ikastolara Arabako



GASTEIZKO BATZOKIAK
ZAHAR SENDO ZINDO

ABENDAÑO ERDIALDE LAKUA ZARAMAGA

RAFA TEJA ATELIER



"Zetazko eta
kotoizko ebunak
eskuz margotuak"
- ZAPIAK -

Arantza Arregui

Ramiro Maeztu, 1 · Tfnoa.: 945 13 33 59

vitrales



**MIKEL
DELIKA**

**BEIRATE
ESTUDIOA**

Txikita kalea, 1
Tfno. 945 14 64 10
GASTEIZ

ARTEPAN



Artisau
Okindegia eta
Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2


Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37

01005 GASTEIZ

HAUEK ERE BAI...



...esan zeuk ere
BAI EUSKARARI!!
izena eman
askatzei eta bernetegiari



ASSA IKASTOLA

Assa Ikastola da Lapuebla de Labarkan dagoen bakarra, eta berarentzat bideratuko da Araba Euskarazko aurtengo edizioan bildutako dirua. Ondo etorriko zaio diru-laguntza Assa Ikastolari, behar handiak baititu. 20 urte pasatxo ditu ikastola honek, eta ibilbide luze honetan traba eta arazo ugari aurkitu ditu.

1978.urtean herriko guraso talde batek, euren seme-alabek etorkizunean euskeraz ikas zezaten, ikastolaren aldeko apostua egin zuen. Guraso hauen ardura, bat zetorren herrian gihartzen zihoan mugimendu abertzalearen nahiarekin, alegia, euskara mugako herri honetan elementu ezberdintzaile nabarmena zela eta, halaber, abertzale izatearen oinarri. Horrela, 4 familien seme-alabek ezarri zituzten Assa Ikastolaren sustraiak. Gerora, ikastolako umeen kopurua handitzen joan zen; bitartean, eskualdeko beste herri batzuetan ikastola berriak jaio ziren eta Assa Ikastolak herri horietako ikasleak hartu zituen, Lapueblan euskerazko ikasketen jarraipena egin zezaten. Horrela, denbora aurrera joan ahala arazo ekonomiko nahiz politikoak sortu zitzaizkion ikastolari, zorrak zirela, irakasleen soldatak zirela, etab. Baina 1994an Lapuebla de Labarkan ospatutako Araba Euskarazek aurrerapauso handia suposatu zuen ikastolarentzat, izan ere, lortutako diruarekin bere egoera berbideratu zelako eta "normaltasun" kutsuarekin lan egitea posible izan zuelako.

Beraz, ikastola honen ibilbidea gogorra izan da, hala azaldu digu Agurtzane Zigarane: "Assa Ikastolaren historia etengabeko borroka izan da, besteak beste, Arabar Errioxaren hegoaldean 2 eta 18 urte bitarteko ikaslegoa euskalduntzea eta hauek euskera maila ona izatea zaila delako".

Egun, 300 ikasle daude Assa Ikastolan, eta horietako 25k, Samaniego, Eskuernaga eta Mainuetako Haur Hezkuntzako geletan ikasten dute. Ikastolaren zabalpen honen ondorioz, garraioak kilometro gehiago zeharkatu behar ditu. Ikasturte honetan hogeit hamar herri desberdinetako 2 eta 18 urte bitarteko ikasleak jasotzen dituzte autobusek eta guztien artean 300 kilometro baino gehiago egiten dute egunero. Bidai luze hauen ondorioz, garraioaren kostua izugarri igo da eta Assa Ikastolak zailtasun handiak ditu gastu horiei aurre egiteko. Honi, Ikastolak dituen zorrak gehitzen badizkiogu, etorkizuna nahikoa zaila duela esan daiteke. Hortaz, oso garrantzitsua izango da Araba Euskaraz-en lortutako dirua, Lapueblako ikastolari bultzada handia emango baitaio.

Errioxako 20 herrietako ikasleak dihoazela DBHtik aurrerako ikasketak euskeraz egitera. Ondorioz, autobusek egunero 340 kilometro egin behar dituzte eta hau gastu ekonomiko handia da. Beraz, Araba Euskarazko helburuetako bat garraioaren arazo horri aurre egitea litzateke. Honekin lotuta, DBH eta Batxilergoaren ezarpenaren ondorioz, ikastolak egin behar izan dituen obrek sortarazi dituzten zorrak ordaintzea ere.

Bestetik, ikastolaren sustraiak ondo errotzeak berebiziko garrantzia dauka. 1994an Araba Euskaraz Lapueblan egin zenean, orduko helburu nagusia ikastola legeztatzea zen. Orain, ordea, ikastola sendotuta dagoenean, halabeharrezkoa da bere sustraiak ondo finkatzea eta bidenabar, erreferente kultural eta soziala bihurtzea herritarron artean.

Halere, aipatu helburuez gainera, bada Araba Euskaraz 99rentzat funtsezkoa den beste xede bat. Araba Euskarazko koordinatzailea den Agurtzane Zigaranez adierazi digunez, "euskararen aldeko jaia ere bada, izan ere, Lapueblan eta Arabako Errioxan oro har, gazteen artean euskararen erabilpena eguneroko bizitzan bultzatzea ezinbestekoa da, gazte gehienen ama-hizkuntza erdara delako eta guraso gehienetsuak ere erdaldunak direlako".

 **Edurne Begiristain.**
 **Edorta Sanz.**



ARABA EUSKARAZ ABIAN DA

Ekainaren 20an Lapuebla de Labarkan topo egingo dugun euskaltzaleek egun paregabea igaro dezagun prestaketak aurrera doaz. Horrela, hila honen 20ko festa handiaz gain, bestelako ekitaldi anitz antolatu dira azken bi hilabeteotan. Gasteizen burutu dira kultur ekitaldi garrantzitsuenetarikoa: Kepa Junkeraren kontzertua, Koldo Zuazo irakaslearen hitzaldia, Trikitixa Kontrairo Taldearen musika emanaldia eta Bertso-trama Bernardo Atxaga eta hainbat bertsolarien eskutik. Horiez gain, Arabar Errioxan ere lan dezente egin dute antolatzaileek eskualde hartan euskera eta euskal kultura bultzatzeko: hitzaldiak, kontzertuak, umeentzako jolasak, kale animazioa... Trebiñoko UDA Elkartearekin ere ekitza batzuk komunean egin dituzte. Azken finean, Arabako bazterretan dauden herri desberdinak lotzeko esfortzu aipagarria egin dela azpimarratu digu Agurtzane Zigaranez. "Gainera, Lapuebla, Araba eta Errioxa arteko mugan dagoenez, hemen, euskeraren aldeko borroka etengabea izan behar du, herria, muga, urrun dagoelako eta horregatik, euskeraren aldeko lanak Euskal Herriko beste herri batzuetan baino handiagoa eta esanguratsuagoa behar du", azaldu digu.

Euskeraren aldeko lan horrek bere fruituak ematen dituela argi asko erakutsi da herri honetan. Horrela adierazten dute, bederen, EUSTAT erakundearen datuek: Lapuebla de Labarka da Araba osoan euskaldun berri gehien duen herria. Kontuan hartzeko datua, ezta?

Euskalduntze prozesu horrek goruntz jarrai dezan, zita ezinhobea dugu Lapueblan hila honen 20an. Aipatutako arrazoiak nahikoak badira ere, beste gisako arrazoiak ere badaude egun horretan Araba Euskaraz jendetsua eta arrakastasua izateko. Lapuebla de Labarkaren paisaia da horietako bat, kontraste handiko paisaia dugu Lapueblarena: mahastiekin batera Ebro ertzeko zuhaitzen gerizpea eta hezetasuna nahasten da (beroari aurre

egiteko leku bikaina). Bertako jendearen berotasuna ere kontuan hartzeko faktorea da, herritarrek oso gogoko izaten baitute kanpoko jendea hara joatea. Eta, noski, egun horretarako prestatu dituzten ekin-tzak ere ezin ahaz daitezke: adin guztietarako ekitaldiekin batera, sorpresaren bat ere ez da faltako. Araba Euskarazko koordinatzaileak bertara hurbiltzeko gonbitea egin digu: "Lapuebla urrun dagoela dirudien arren, hortxe bertan dago. Gainera guk ahalik eta erraztasun gehien jarriko ditugu jendea hara joan dadin eta primeran pasa dezan. Jendeak ikusi behar du han euskarak laguntzaren premia daukala, esku gutxi gaudela lan horretan, eta guztien partehartzea ezinbestekoa dela".



ARABA EUSKARAZ DATUETAN

Ekainaren 20an jendetza handia biltzea espero dute Araba Euskarazko antolatzaileek, nahiz eta Lapuebla Gasteiztik hegoalderantz 50 kilometrotara (Herreratik) edota bestela 70 kilometrora dagoen eta jendeari urrun samar dagoela iruditzen zaion.

Duela 5 urte (1994an) Araba Euskaraz Lapueblan ospatu zenean 65.000 pertsona hurbildu zen, eta aurten orduko zifra gaindituko dutela uste dute. Horretarako 1.200 pertsona inguruk lan egingo du Araba Euskarazko antolaketa eta prestaketa lanetan. Guztion artean dena prest egongo da egun horretako jaia primerakoa izan dadin.

Ibilbidea edo zirkuitua 7 kilometrokoa izango da eta 5 gunetan egongo da banatua: 2 gune Ebro ibaiaren ertzean, beste bat ikastolan bertan, bestea ikastolaren alboan eta bosgarrena mendialdean.



APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

etxean eskuratu!

Bideoa.
Iraupena: 80'
1.200pzta.



Kotxe pegatina.
200pzta.



Pin-a
100pzta.



Izen-abizenak _____
Helbidea _____
Posta Kodea _____
Herria _____
Herrialdea _____
Telefonia _____
Kontu Korrontea (20 zenbakiak) ____/____/____
edo taloi bat.

ESKAERA

MATERIALA	KOPURUA	ZENBATEKOA	OSOTARA
Bideoa		1.200	
Pin		100	
Kotxe pegatina		200	
Bidalketa gastuak			+300
			OSOTARA

Bidali lehenbailehen.

Korreoz: KONTSEILUA
Martín Ugalde Kultur Parkea
20.140 ANDOAIN

Faxeaz: 943.59.30.51



Beiraduren arteko Arte Sakroa

El Greco, Rivera eta Alonso Canoren lanak, zilarrezko piezak, landutako zura, eskulturak, mihiseak... guztiak XII. eta XX. mende bitarteko artelan erlijiosoak dira eta Gasteizko Katedral Berrian bilduta daude. Arte Sakroaren Museo honek apirilaren 30ean ireki zituen ateak. Arabako ondare artistiko-erlijiosoaren gune bilakatu zaigu Inmakuladaren Katedrala, eta bide batez, arabar guztiok gure lurraldearen arte sakroa ezagutzeko aukera ezinhobeare. Orora 250 lan-erlijioso ikus daitezke museo honetan. Artelanak katedralaren giroa osatzen duten hamahiru kaparetan banatuta daude, eta erakusketa errazago eta entretenigarriagoa izan dadin, lan guztiak historikoki, artistikoki eta kronologikoki sailkatu dituzte.



Erakusketa, Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Elizbarrutiak ahalbidetu dute, Azken honenak dira gainera, ikusgai dauden obren %80, gaintzekoak Arabako Aldundiak, Vital Kutxak eta BBV-k eskaini dituzte. Arabako herri askotako artelanak ikus daitezke museo honetan, den-denak aurreromaniko eta barroko aroen artekoak. Esaterako, museoaren sarreran Galarreta, Ilarduia eta Cripán-en hilotzak, lortzak eta xaretak antzeman daitezke harri erromanikoan zizelkatuak, guztiak Arabako kristautasunaren hasieraren isla. Baina, agian, artelanarik ikusgarrienak El Greco, Ribera, Lucca Giordano edota Alonso Cano margolari ospetsuen kuadroak dira. Katedrala kapera desberdinetan banatua dagoenez, erraza da oso mende-mende eta autorez-autore museoak bildutako artelan guztiak patxadaz aztertzea. Guztira bost erakusketa-

gune dira Museo Sakroa osatzen dutenak, eta gune bakoitzak garai historikoko bakoitzeko materialak biltzen ditu: harria, enborra, taula, mihisea eta zilarra. Kaperetako bik, adibidez, harriz egindako eskulturak erakusten dute, beste bitan, landutako zura da nagusi (gehienbat Andra Mariak), eta beste kapera batetan margolari flamenkotar garrantzitsuenen obren bilduma ageri da. Kuadro, eskultura, taula eta abarren inguruko datuak ere ez dira falta. Izan ere, artelan bakoitzaren azpikaldean lanaren izenburua, estiloa, garaia eta jatorria argi azaltzen da. Deskribapen txiki honekin batera, artelanen jaioterria behar bezala zehazten duen Arabako mapa txiki bat ere badago.

Harritzekoa bada ere, Museo Sakroa eraiki ahal izateko ez da beharrezkoa izan Katedral Berriaren egitura eraldatzea, izan ere, museoaren egitasmoan katedralaren estruktura errespetatu zedin halabeharrezkotzat jotzen zen. Horrela, museoak lekuz aldatu beharko balitz, egun gutxitan katedralak bere ohiko itxura bereganatuko luke. Halaber, erakusketaren egileek ez dute ahaztu artelan baliotsu hauek behar duten giroa eta baldintzak bereziak direla. Eta horregatik, klimatologia, hezetasuna eta argitasuna bezalako elementuak ongi asko zaindu dituzte, katedralan dauden obra sakro guztiak egoera hoberean mantentzeko eta, bidenabar, bisitariok ahalik eta politen ikus ditzagun.

 **Edurne Begiristain**
 **Edorta Sanz.**

ITURRIETA

Sagardotegia



Txotx egin !

*Astelehenetik asteazkenera enkarguz.
Ostegunetik igandera zabalik*

Arraga auzoa. Tfnoa.: 945 44 53 85 • ARAMAIO

Gasteizko Santa Maria Katedrala "Katedral Zaharra" bezala ezagutze-ko arrazoi bat baino gehiago dago. Alde batetik, Santa Maria Katedrala denbora luzez abandonaturik egon dela eta bestetik, Gasteizek katedral berriago bat daukala. Halere, Katedral Zaharra izena erabiltzeak badu pisuko beste arrazoi bat, alegia, Santa Maria zahar-zaharra dela, XII.mendekoa hain justu. Alta, denborak baino gehiago, gaizki zaindu izanak zaharkitu du, neurri handi batean, Santa Maria. Eraiki zen momentutik "gaisorik" egon da, eta urteak pasa ahala, gero eta kalte gehiago pairatu ditu. Hori dela eta, 1994az geroztik katedrala itxita egon da erortzeko arriskuan zegoelako. Baina azkenean, katedrala berriztatzeari ekin zaio. 1996an martxan jarritako Berriztapen Planaren bitartez, eraikuntza zaharraren alde fisiko, kulturalak eta historikoak kontuan hartu eta katedralaren eta inguruaren ezaugarriak aztertu dira Santa Maria behar bezala konpontzeko.

Katedrale zaharraren BERPIZTEA

Hala ere, berrerabiltze-lanak abian jarri aurretik, Santa Maria katedralak atea ireki ditu hiritar orok Gasteizko eraikuntzarik garrantzitsuenetarikoa ezagutu dezagun. Iragan otsailaren 27an zabaldu zen katedral zaharraren erakusketa. "Elizgizon, soldadu eta merkatarien artea" lelopean, Arabako Foru Aldundiko Hirigintza, Arkitektura eta Ingurugiro sailak antolatuta. Orain artean 30.000tik gora pertsonak bisitatu du Santa Mariako erakusketa, antolatzaileek esperotakoa baino askoz gehiago. Arrakasta itzela ikusita, arduradunek erakusketaren epea luzatzea erabaki zuten, abuztuaren 1a arte. Gainera, bisitarien kopuru handiari esker,

katedrala eta ingurua berreskuratze-ko beharrezko dirua jada lortu da.

Mende hasierako eraikuntza honetara leku guztietako jendea hurbildu da, besteak beste, bizkaitarrak, madrildarrak, katalundiarrak, balentziarrak eta galiziarak. Guztiek, katedral zaharraren erdi-aroko harriko sustraiak ezagutzeko, pairatzen dituen gaitzak gertutik ikusteko, eta etorkizunean izango dituen berriketak eta konponketak antzemateko parada ezinhobeia izan dute. Izan ere, Santa Maria bisitatuz gauza asko ikas daitezke. Bere hormak, ganga edota zutabeak begiratzuz somatuko dugu katedralak denboraren pode-



rioz izan dituen kalteak. Gaitz guztien artean larriena, ezbairik gabe, XV. eta XVI. mendeetan katedralaren harrizko gorputzak jasandakoa da. Garai hartan eraikuntzaren zurezko gangak harrizko batzuegatik ordezkatu zituzten eta aldaketa hura erabat kaltegarria izan zen Santa Mariarentzat: eraikinak ezin izan zuen horrenbeste pisu sostengatu, eta laister arrailak eta deformazioak agertu zitzaizkien katedralaren murruei. Katedralaren zaharkitze prozesu azkarra eteteko asmoz, orain artean 120 konponketa-lan inguru egin dira. Aurtengoarekin, berriz, eraikin eder hau behingoz berreskuratzen saiatuko dira. Horrela, edertasun handiko katedralari bizitza bueltatzeaz gain, gasteiztar guztiok izkutuan egon den arteaz gozatzeko aukera izango dugu.



Edurne Begiristain

Edorta Sanz.



Gasteiz

bide berriak euskararentzat

bozkatu



Gasteiz



Euskararentzat



aldizkaritxo

Ekaineko LAGUNA



JON MINTZALARIA

"Kaixo lagunok...", era honetan ematen dio hasiera Jonek asteartero Maritxu Berritsu irratsaioari. Beraz, Jonek urte hasiera honetan, asteartero eginkizun berezi eta benetan interesgarria dauka Maritxu Berritxu irratsaioko mintzalari izatea.

Ikasbideako gelan zegoela irratsaio honetan parte hartu nahi izan zuen eta berehala hasi zen ahotsa berotzen.

Ordu beteko programa honetan bere kideekin eta Yeni zuzendariarekin primeran pasatzen du. Hala ere, batzuetan irratian hain ondo pasatzea ez da batere komenigarria, adibidez mikrofono aurrean barre leherketa batek harrapatzen bazaitu. Barrea bai, baina orduan estudiotik ospa egin behar, baretu arte. Hori dela eta astero asteartea noiz iritsiko den irrikan dago, beraz mintzalarien harrobia aurrera doa.

ZER DA ZURETZAT... AZTIA



MIKEL, 9 urte

Era askotako trukoak erabiltzen dituzte, hauetariko asko kapela beltz batez egiten dira. David Koperffieldenak adibidez truko berezi bat dauka: hegan egiten duenean. Hala ere, niri ez litzaidake gustatuko aztia izatea, ziur aski erabilitako tresnaren bat apurtu ahal izango nukeelako.



GEURE ARTISTAK



Oihane. Guatemala Amerikan dago. Nolakoa da jendea? Ba, horko jendea pobrea eta beltzarana da. Beren etxeak txarrak eta egurrezkoak dira. Hor animalia asko daude, horietako bat Quetzal da. Berdea, urdina eta gorria da. Beraiek arropan kolore biziak dauzkate.



Mikel. Guatemalan landare asko daude eta oso handiak dira. Etxeak egurrezkoak dira, arropa beraiek egiten dute eta dena kolore askorekin egiten dute. Guatemalan animalia asko daude, esate baterako Quetzal da. Guatemalako jendea pobrea da.

BARRUTIA IKASTOLA



Maria. Guatemalan jendea oso morenoa da eta oso pobreak dira. Beraien arropak oso kolore biziak dauzkate. Ura ez daukatenean iturrietatik edo putzuetatik hartu behar dute. Ura , arropa eta dena beraiek egin behar dute. Egurrezko etxeetan bizi dira, janaria lurrean egiten dute. Hor animalia asko daude.



AITOR, 9 urte

Aztiek kapela kopadun, amerikana eta makiltxo miragarri bat darametzate. Nik ez daukat ideiarik baina nire lehengusu batek kartekin joku pare batzuk badakizki. Gainera diru asko irabazten dute eta etorkizunean aztia izateko asmoa dut.




DAVID ETA NEREA, 4 urte

Araian ikusi genituen azti baten truko berezi batzuk: zapiarena, ahate baten desagerpena..... Dena den, Nereak ez dauka joku hauek egiteko gogorik nagusi izaterakoan.



JOKOAK KALEAN



Ander. Guatemalan txori mota asko daude. Bitxiena Quetzal da. Urdin argia, gorria eta berdea da. Guatemlako herritarrekazala gurea baino gorriagoa dute. Jendeak merkatua lurrean egiten du. Arropako koloreak biziak dira.

(7 urte)



Julen. Quetzalek oso kolore biziak ditu eta lumak oso luzeak ere bai. Guatemalan bizi da eta bere koloreak hauek dira: gorria, txuria, berdea eta urdina. Guatemalako jendea beltza da eta beraien arropak kolore biziak ditu.

Orain dela hiru urte hasitako joku jaialdi berri baten aurrean gaude. Aurten Ekainaren 26tik Uztailaren 4ra jaialdiak bitxikeria batzuk aurkeztuko dizkigu, hots, jokuentzako leku berriak eta monitore edo arduradun gehiago.

Jokuetan aritzeko tokiak hauek dira: Goiuri jauregia, Floridako parkea; General Loma, Andre Maria Zuria, Peña Floridako kontea, Matxete eta Foru plazetan. Areto hauetan eskaintza oparo dago: puzzleak, partxisak, rol jokoak, abenturakoak, eraikintzakoak, eta abar....

Jokoak kalean denborapasa aproposa da eta udako egun epel eta eguzkitsuetan oporretako arratsaldeak pasatzeko aukera egokia. Urtero arrakasta handia izan ohia da, beraz, eguraldiak laguntzen badu etxeko ateak itxi eta zoazte jokoez goatzera.

Gasteizko Udal Batzak
onartu berri duen kaleen euskal
izendegi ofizialaren historia
94. urtearen erdialdean hasi
zen GEU Elkartearen ekime-
nez. Ordutik hona, 99ko mar-
txoan onartu zen izendegia,
lan handia egin da bi ada-
rretan banatuta ofizialtasu-
naren helburua lortzeko.

Batetik, lan teknikoak, itzul-
pena lana, egin duen taldeare-
na, eta bestetik gaizki idatzita zeuden kaleetako
plakak aldatzeko eskaerak eta kexak eman dituztenak. Txipi
Ormaetxeak eta Iñigo Kastresanak bi alorretan lau urte terdian egindako bide luzea
gogoratu dute.

Udal Gobernuak hartutako erabakia hartuta, inolako erakunde publikoetan ezin izango dute kale baten euskarazko izena ez onartzeko, berdin posta bulegoa izan, zein komisaldegia edo Ogasun zaila izan. Baina gainera, ofizialtasunaren eragina norberaren erabileran eta jasotako kartazaletan ikustez gain, kalean ere nabaritu behar da, Udalak 40 milioitako partida bat onartu baitu okerrak zuzendu eta hiriko kartelak izendegira egokitzeko.

Udalak ez du oraindik zehaztu zalbalpen kanpainarik egin behar duen ala ez, agian gai horretan ere herri ekimenak aurrea hartuko du G£Uk irailerako ekitaldiak prestatzen ari baita, baina hainbat leku publiko zein pribatuetara igorri du izendegia kontutan hartua izan dezan.



1994. urteko San Fermin eguneko bezperan bildu zen lehen aldiz Gasteizko euskal kale izendegia aurrera eramane duen taldea. GEU Gasteiz-ek deituta egin zen, elkarrean bertan sortutako ekimen bati forma ematen hasteko. Bildutakoak GEUko **Txipi Ormaetxea** eta **Patxi Salaberria**, Udaleko **Patxi Martinez de Marigorta** eta **Imanol Zurutuza** eta Euskaltzaindiako **Manu Ruiz Urrestarazu** izan ziren. Gerora **Patxi Goenaga** eta **Endrike Knörr**, Euskaltzaindiako kideek lan taldea osotuzuten.

Irizpideak finkatzeko eta itzulpen lanetan zalantzak sortu baziren ere lanaren helburuak oso argi zeuden hasie-

CEGASA
INTERNATIONAL
ALCALINA

 **rdatz**

**itzulpen eta
euskara zerbitzuak**

Arana kalea, 5 - 1
Tfnoa: 945-26 44 32
01002 - GASTEIZ



ratik. Batetik, hitzulpen lana burutzea *“orain kaleetako plaketan okerrak ikusten badira, garai horretan oraindik ere oker handiagoak zeuden”*. Lana egin eta gero kale izendegiaren zabalpena egitea zen bigarren helburua, erabilera bultzatzea alegia.

GEUren ekimena

Helburuei egokitutako bidelagunak deitzea erabaki zuten GEUkoek. *“Euskaratzea helburu izanda, Euskaltzaindia tartean egotea, beren onespina edukitzea, logikoena zen, eta Udalaren ofizialtasuna lortzea kontua zenez, Euskara Sailekoekin aritzea ere normala iruditu zitzaigun. Batez ere, Udalak zabalpena eta erabilera bultzatzeko lan handia egin dezakeelako”* azaldu du Ormaetxeak.

Kale izendegia talde lanaren emaitza bada ere, ekimena GEUrena izan zela azpimarratu behar da. *“Euskararen alorrean hainbesteetan gertatzen den bezala lan hori egitearena behetik gora planteatuta zen. Ez ginen Cuerda jaunarengana joan lana aurrera eramateko laguntza eske, nahiz eta egia den Udalak egin behar lukeen lana dela iruditu”*. Udalak ez du dirulaguntzarik eman eta ez du ofizialtasunera-ko erreztasunik eman, onarpena bera legegintzaldi amaiera-amaierarako utziz.

Euskal jatorrikoak, euskaraz

Lanean hastean lehenengo eginbeharra irizpideak finkatzea izan zen. Eta lan luzea izan denez, hauek ezarri, erabakitakoa zalantzan jarri eta aldaketak egiteko beta izan da. Irizmenak ezartzean Euskaltzaindiaren erabakiak kontutan izan dira, *“argi dago, Akademiak erabaki sendoak duen esparruetan horiek jarraitzea baino ez zen geratzen”*.

Bide luze horretan aurkitutako arazoetariko bat toponimoena izan zen: *“Kontu zaila da eta azken aldian laguntzatxo bat izan genuen Euskaltzaindiako talde bat Gasteizko toponimoak aztertzen hasi zelako”*. Gasteizen egon badaude denborarekin desitxuratu eta gazteleratu diren hamaika euskal toponimo. Jatorrizko bertsioa euskarazkoa dela baieztatu den kasuetan erderazkoka ere aldatzea proposatu du izendegiak. Adibidez, Uritiasolo jatorriz Oreitiasolo dela jakin dute, Janalde baino bertsio egokia Ajanalde dela edo Zaroa eta ez Zazoba esan behar dela. Eta horrek euskara zein gaztelerarako balio behar du, toponimoak direlako.

Hainbat erdal toponimo berriz, errespetatau egin dira, Senda Ibilbidea edota Florida parkea kasu.

Beste zalantza iturri bat hiriko alde zaharreko kaleekin zer egin izan zen. *“Euskaldunok ere oso barne-*



Andra Mari Zuriaren plaza

KAMISETAK: KUKUXUMUSU, KOT,
PERRETXIKOAK BASOAN, BARABÚ...

EUSKAL OIHALAK: MANTELAK, ZAPIAK...

OPARIAK ETA EUSKAL OROIGARRIAK

NONBAIT

ZURE
EUSKAL
DENDAK

Loma jeneralaren plaza, 5
Mateo de Moraza, 7

GASTEIZ

Tel./faxa: 945 232229
nonbait@nonbait.com

ratuta ditugun izenak izanik mantendu behar ote genituen asko pentsatu genuen, gainera oso izen zaharrak dira, tradizio handikoak eta..." Azkenean, erabakia euskaratzea izan zen eta akaso denbora luze igaro gabe "Aiztogile kalean geratu naiz" esango du jendeak.

Bestelako kale izenak ere buruhausteak sortu dizkio itzultzaile taldeari, baina ez itzultzeko zailak izateagatik hain zuzen. Izan ere, Plaza Berria edo Espainia Plaza? Eta nola itzuli Voluntaria Entrega? "**Plaza Berriaren kasuan erabaki salomonikoa hartu genuen batera eta bestera jarritz, Jatorrizkoa Plaza berria omen da, baina bietara erabiltzen da eta aukera ideologikoa dela ean daiteke**". Lan egiteko ezarritako erizpideak ez direla matematikoak azpimarratu du Txipik, eta "**Voluntaria Entrega adibidez bere horretan utzi genuen, gatzeleraz**".

Voluntaria entrega ez da oso ideologia markatua adierazten duen kale izen bakarra. Garai batean, egoera politiko batean, ezarritako kale izen ugari mantendu dira eta jatorrizkoen aurrean nagusitu, bertsio era bat arrotzak izanda ere. "**Are gehiago, oso kale izen gutxi**

aldatu dira jatorrizko bertsioetara bueltatzeko edo egokiago direnak jartzeko".

Erabilerarako irizpideak

Duela ia bost urte egindako lanari azken errepasoa aurtun bertan eman zaio, azken zalantzak eztabaidatu eta zehazteko. Hala ere, eta Euskaltzaindiak Gasteizko toponimoei buruz hasitako lana bukatu gabe dagoela kontutan hartuta, aurrerantzean zenbait aldaketa egon daitezke, Euskararen Akademiak erabakitakoari egokitzeko.

Udal Gazetarekin argiratu den izendegian talde teknikoak erabilerarako egindako oharra ere agertzen dira. Izen bereziei eman zaien tratamendua, genitibo marka noiz eta zergatik mantendu den, 'bide', 'atea' edo 'eskailera' hitza kale izenaren osagarria denean zer erabaki hartu den eta kartazaletan zelan idatzi behar dugun azaltzen zaio irakurleari, besteak beste.

Egileek ohar horiek irakurri eta jarraitzea gomen datzen dute, "oinarria dugula aprobetxatu eta idaztean forma biziatsuak sor ez daitezen".

Iñigo Kastresana: "Erronka orain erabilera da"

Lau urte eta erdi euskarazko kale izendegiaren ofizialtasunaren alde eta itzulpen kaxkarrak aldatzeko lanean eman ondoren, lortutakoa oinarria baino ez dela dio prozesu guztia ondo ezagutzen duen Iñigo Kastresanak. "**Sinesgaitza egiten bada ere, Gasteizen Euskal Herriko egoerarik hoberena dugu gai honi dagokionean, horregatik erronka nagusia euskaltzaleon esku dago orain**" azaldu du Kastresanak.

Kaleen izenak euskaraz esateari buruz euskaltzaleak alper xamarrek direla uste du gasteiztarrek, "**ohitura faltagatik izango da, baina euskaraz hitz egiten ere Los Herran kalean bizi nahiz esaten da, ez Herrandarren kalean. Eta hori ez bakarrik kale mailako euskararen, ETBn ez dituzte izenak ondo esaten eta teoriarik euskararekiko sentiberatasun handia daukaten talde batzuen kartelak ikustea besterik ez dago arreta handiegirik jartzen ez dela ohartzeko**".

Nire esku

Duela lau urte eta erdi inguru, kaleen izendegia itzuli zuen talde teknikoak lanean hastearekin batera Iñigok kaleetako izenen plaka urdinen kontrako itzulpen txarren kontrako borrokari ekin zion. Bi urte inguruko epean jarritako kexa eta instantzien bidez 1.000 bat plaka eta seinale aldatzea lortu bazuen ere, oraindik ere hainbat eta hainbat gaizki daudela gogoratzen du, "**dena den, horrek ez nau ere gehiegi kezkatzen, denborarekin aldatu egingo dira. Nire esku**".

Prozesuaren hasieran txango bat egin zuen Gasteizen bizikletan argazki makina besapean hartuta ikusitako okerre argazkiak ateratzen eta egun Iñigoren instantziek betetako karpeta handia omen dago Udaletxeko apalen batean. Eta hori, era antolatuan lan egin gabe: "**Ni akrata samarra naiz eta nahiz eta talde euskaltzaleek bere babes osoa**

eman didaten arren, lana neure kabuz egin dut".

Kexak jarri zituen lehenengo bi urteetan emandako instantzia bakoitzak erantzun baikorra izan bazuen ere, "**azken urte t'erdian aldaketa gehiago egin aurretik ofizialtasunaren zain zeudela esaten zidaten**". Nola edo hala jendearen kexa eta protesten eraginak ofizialtasunaren alde egin duela uste du Kastresanak, "**jendeak egindako presioak ofizialtasunari bidea ireki dio eta horren ondorioz gainera Udal funtzionarioek arreta gehiago jartzen diote euskarari, gaiaren gainean dagoen jendea ikusi dutelako**".

Ardurak zehaztu

Ofizialtasunarekin pozik agertzen da Iñigo Kastresana, baina azken lau urteetan Udal Gobernuaren ardura politikoa izan dutenekin oso kritikoa da, "**eragozpenak jarri baino ez dute egin eta euskal izenak ezartzea noren ardura den eta teknikokei ardura exijitu ezean egoerak ez du hobera egingo**". Horrexegatik, eta hauteskampaina zirrikitu guztietara iristen dela aprobetxatuz, Euskara zinegotzi bat eskatzen dio Kastresanak ekainaren 14tik aurrera izango den Udal Batzari.

Posta zerbitzuan, arazorik ez



Kaleen euskal izendegiaren ofizialtasuna nonbait nabaritu behar bada Posta zerbitzuan izango dela suposatzen da. Izan ere, ofizialtasuna lortu arte gutunazaletan kalea euskaraz jarrita eskutitza normal helduko zelaren bermea ez da inoiz lortu, nahiz eta praktikan kartak iritsi iristen ziren. Gasteizko bulegoan ez dute gai honi buruzko gehiegizko zehaztasunik eman nahi, "komunikazio ofizialak Madrildik egiten direlako". Hala ere, kale izena euskaraz jarrita izateagatik sekulan ez dutela eskutitz bat atzera bota adierazi du Gasteizko Posta Zerabitzuko Kudeaketa zerbitzu buruak: "Izendegi ofiziala izan aurretik ere iristen ziren, bulegoan eta postarien artean itzultzaile lanak egiten zuten euskaldunak daudelako".

Nola edo hala, Geu Elkartearen ekimenez egin eta Udalak onartu duen euskal kale izendegia erabat baliagarria eta ofiziala da Gasteizko Posta Zerbitzuan. Udaleko Prentsa zerbitzuak zabalduetako liburuxka postari guztien mahai gainean dagoela berretsi zuten postakoek, euskal izenak ikasi arte kontsulta liburu moduan erabili beharko dutelako. "Horixe bera gertatu zitzaigun herri izenekin, Biasteri edo Legutio irakurri genuen lehen aldian zein herri zen begiratu behar izan genuen, gaur ez dago arazorik. Hala ere, bidaltzen diren gutunen %99,9 gazteleraz datoz".

ESAN BAIETZ!



10
U
R
T
E
ika
zurekin

- Cursos de 2 y 5 horas / 2 eta 5 orduko ikastaroak
- Todos los niveles / Maila guztiak
- Barnetegis / Barnetegiak:
Lesaka, Doneztebe, Leitza y Etxalar.

* Matrikulazio epea - Plazo de Matricula

Uztailerako (para julio):

ekainak 1 - ekainak 18 (1 a 18 de junio)

Irailerako (para septiembre):

ekainak 1 - uztailak 23 (1 a 23 de julio)

Barnetegietarako (para barnetegis):

ekainaren 1etik, hasi baino aste bat lehenagora arte

INFORMAZIOA.

GASTEIZ EUSKALTEGIA
Errege-Erregina Katolikoak, 15 C
945 - 28 89 22 tfnoa.

PINTO EUSKALTEGIA
Pinto, 74
945 - 28 97 80 tfnoa.

ZALDIARAN EUSKALTEGIA
Badaia, 25
945 - 24 49 05 tfnoa.



"Kolperik handienak bizitzak ematen ditu"



"Indarkeria ez dut gogoko"

"Oleta munduko herririk politena da"



Maider Unda arabarra borrokalaria dugu. Berak dioenez, kirol horretan, beste batzuen moduan, gizonkeria da nagusi.

Halere, Maiderrek ez du berezkoa duen alaitasuna galtzen. Arabako Oleta herrian harrapatu genuen, mendiak eta animaliak lagun, bere baserrian.

- 90-60-90 dira neurri ospetsuak, Maiderrenak?
- Ez, nireak ez dira horiek, oker ez banago, askoz handiagoak dituzu nireak. Ez ditut sekulan neurtu, baina 75 kilo pisatzen ditut eta nire altuera metro bat eta 77 zentimetrokoa da.
- Zenbat aldiz esan dizute neska ederra zarela?
- Je, je... Askotan esan didate, baina ez diet ezer erantzuten, lotsatia naiz eta.
- Nire aita ere handia denez, entzuteko ohitura daukat. Horrez gain, kirolak zure gorputza lantzen du.
- Eta atsegin duzu hori entzutea?
- Gehienetan ez zait gustatzen. Halere, esaten duen lagunaren arabera da hori.
- Zuk, Ronaldoren moduan, goizez zortzi ordu ematen dituzu lantegian, eta arratsaldean entrenamendua...
- Ronaldo lanean? Ez dut uste. Nik txandaka egiten dut lan, goizez eta arratsaldean. Tresna elektronikoak egiten dituen lantegi batean ari naiz. Zortzi ordu ematen ditut eserita, lana ez baita fisikoa.

Pisu arazoak

- Azken txapelketan zure pisuko lagunik ez zegoenez, ezin izan zenuen borrokatu, antza?
- Hori da. Estatuko txapelketan izan zen. Lehen bazegoen Kanariar irltako baten bat, baina orain ezin dut inoren aurka borrokatu, nire pisuko lagunik ez baitago. Ez dakit, agian pisua jaitsi beharra daukat, bestela...
- Zer eskaintzen dizu Oletak, Gasteizek ez duena?
- Oleta herria oso polita da. Mendi ederrek inguratzen duten etxe handi batean bizi naiz. Hantxe ardiak, behiak, zaldiak... ditugu, aita-ama abeltzainak baitira. Hori ez dago Gasteizen izaterik eta ez nuke gustoko hiriko etxebizitza txiki batean bizi behar izatea.

• Borroka bezalako kirol batean, mina izateko arriskua handia da?

- Nire iritziz, kirol guztietan har dezakezu min. Nik ez dut sekulan gaitzik izan. Gorputza sasoian baldin baduzu, ez dago inolako arazorik borrokan.

• Halere, nork ematen ditu kolpe handiagoak, bizitzak ala arerioak?

- Ezbairik gabe, bizitzak. Batzuetan zaila da bizitza, lagun askorekin topo egiten baituzu eta batzuk ez dira batere onak. Borrokan arerioen kolpeek ez dizute minik egiten, bizitzan berriz bai, batzuek ahalmen hori dute eta.

• Nork bultzatu zintuen honetan hasteko?

- Orain hamar bat urte Gasteizko entrenatzaile bat Otxandiora etorri zen eta berarekin hasi nintzen. Neska-mutil asko hasi ginen arren, egun hiru bakkari aritzen gara. 12 urte nituen orduan.

• Noizean behin indarra erabiltzea ezinbestekoa da?

- Guztiok hobe dugu ez erabiltzea. Gainera, nik ez dut gogoko indarkeria.

• Zergatik izan behar du emakumezkoen borroka kirol olinpikoa?

- Gizonezkoa aspaldidanik delako. Halere, berehala onartuko omen dute.

• Mainerrek badu Sidneyra joaterik?

- Estatuko bizpahiru baino ez dira joango. Nire pisuan ez bezala, gainerakoetan maila puntakoa da, eta beraz, beste batzuk aukeratuko dituzte. Bartzelonan eta Madrilen oso instalazio eta entrenatzaile onak dituztenez, hangoak dituzu joango direnak. Egun nik ez dut Sidneyra joaterik.

Urkiolako San Antonio

• Oletatik gertu Urkiolako San Antonio dago. Joateko beharrik duzu?

- Oraingoz ez dut beharrik, ezta joan nahi ere. Bertara joatea gustatzen zait, baina ez senargaiaren bila. Ez dut horrelakoetan sinesten, beharbada 40 urteekin, desesperimenturik...

• Badaezpada joatea ere ez legoke gaizki...

- Sarritan joan naiz, baina harriari ez diot bueltarik eman. Gainera, ez dago argi buelta bat ala bi diren.

• Kirol munduan matxismoa nagusia da?

- Bai, bada. Esaterako, orain berri Estatuko gazte txapelketak izan dira, mutilek borrokatu dute, baina dirurik ez zegoenez, neskek ez. Hortaz, neskak ezin izan dira Sebillara joan.



• Borroka ez baita kirola emakumeentzat.

- Badakienak ez du hori esaten. Hori esaten duenak ez du kirol hau ezagutzen ala matxista hutsa duzu. Borrokan ari zarela, arerioak dituzu, baina bukatu bezain laster, lagunak gara guztiak.

• Tenisa ala saskibaloia, aldiz, egokiak dira.

- Ez zaizkit gustatzen. Txikitan saskibaloian jolastu nuen, aspertzen nintzenez, jolasteari utzi nion, ez bainuen punturik egiten.

• Zuk erabaki behar duzu, baina Euskal Herrian borroka, rock and rollek bezalaxe, ez du sosik ematen.

- Horrela da. Alabaina, gustokoa duenak egiten du. Dirua ez zait axola, bizitzan beste gauza garrantzitsu batzuk daudelako.

• Hau argitaratu ondoren, noiz egin beharko dizugu beste elkarrizketa bat?

- Datozen asteotan ez dut txapelketa handirik. Agian, datorren urtean, lanean gogor hastean.



Ismael Diaz de Mendibil



Edorta Sanz

Argazki - Estudio

Erramun

Heradio Fournier, 23
Tnoa: 13 71 02
01006

Askatasun kalea, 5
Tnoa: 26 19 91
01004

AMILAMIA

arropa eta osagarriak



Pintore kalea, 17
tfnoa:
945 27 40 09
GASTEIZ

jo eta ke
TXAPELARRI
TABERNA

Aiztogile (Kutxi) kalean



"Nik ez nuke banderarik gailurrera igoko"

Juanito Oiarzabalek lortutako 8.000 metroko hamalau mendietatik hiru Juan Vallejorekin batera bereganatu ditu. Gasteizko mendizalea ondo ezagutzen dutenek diotenez, Vallejo indartsua eta langilea dugu, lankide ezin hobea, beraz, aurreikusitakoa lortzeko. Askok lagundu diote Oiarzabali eta horietako bat gure protagonista dugu.

• Diotenez, Oiarzabal burugogorra eta jenio txarrekoa da.

- Bai, egia da, burugogorra dugu. Halere, Himalayan murgiltzeko beharrezkoa da jenio txarra, oso zaila da, bestela. Mendizale gehienok burugogorrak gara, baina ez Juanito adina.

• Mendian, guztion bizimoduan bezalaxe, etsaiak eta lagunak daude? - Gehienak lagunak ditudan arren, egon badaude etsaiak, edo hobeto esanda, lagunak ez direnak. Alabaina, horiek ez dute zure bidea oztopatzen, bakoitzak berea egiten du eta.

• Zer dela eta euskaldunon eta mendia-aren arteko maitasunezko harremana?

- Euskaldunok atsegin dugu menditik ibiltzea. Jaio bezain laster, mendira goaz. Pausoz pauso Himalaya da helburua, eta bertara behin hurbilduz gero, liluratuta itzultzen zara. Gainera, Juanito edo Inurragi anaiak ibilitakoak beste batzuk animatzen ditu, eta beraz, guztioz errepikatzen dugu.

• Oiarzabalek 14 mendirik garaiena behin bereganatu eta gero, nork izango duzu lagun aurrerantzean?

- Juanitorekin joaten jarraituko dut, hain zuzen ere, datorren urtean

"Mendizale gehienok burugogorrak gara, baina ez Juanito adina"

berarekin joango naiz Everestera. Nik mendia maite dut, eta Himalaya ez bada, beste leku batzuetara abiatuko naiz. Azken mendian Ferran Latorre kataluniarra ezagutu dut, eta agian elkarrekin zerbait egiten dugu.

Gailurreko zereginak

• Himalayan ez dago beldurrik izate-rik?

- Bertan ezin da beldurrez ibili, bai, ordea, errespetuz. Annapurnan, adibidez, 105 espedizio egon dira, eta bidetik 64 lagun hil dira. Hortaz, badakigu hiltzeko arriskua hor dagoela, baina ez gara beldurrez joaten.

• Arabarrek Oiarzabalen lana aintza-koztat hartzen dute?

- Nik uste dut baietz, euskaldunok oso ondo ulertzen baitugu zer den 8.000 metroko mendi batera igo-tzea, are gehiago, kirolaria berta-koa izanik.

• Everestera igo zen lehen euskaldu-nak, Martin Zabaletak, alegia, "Gora Euskadi Askatuta" oihukatu zuen gailurrean. Zer egin zuen Juanitok azkenengoan?

- Hunkituta ikusi banuen ere, gailu-rreran ez duzu gozatzen, batetik, hotza handia delako (30 bat gradu zero azpitik), eta bestetik, ahalik eta azkarren jaitsi nahi duzulako. Orduan, 20 minutan dena egin behar duzu, argazkiak eta irudiak atera, gailurra ikusi... Beheko kan-pamendura heldu arte, ez zara ezertaz konturatzen.

• Bandera bat baino gehiago igotzen duzue tontorrera (instituzioak, mer-katal etxeak...). Zuk erabakitzerik bazenu, zein eramango zenuke?

- Nik ez nuke ezer eramango, eta eramatekotan ikurrina izango litza-teke. Kontu horiek lelokeriak dira, baina diru-jaunak horretan ere agintzen du. Horren ondorioz, 20 bat igo genituen Annapurnako gai-lurrera.

• Zer irakatsi behar digute Himalayako herriek?

- Asko dute irakasteko. Adibidez, beraiei ez zaie mendi baten gailu-rrera igotzea axola. Beraiek mendi-ra doaz, baina lasai egoteko, ez dute mendia lanbidetzat, guk bezala.



Ismael Diaz de Mendibil
Edorta Sanz

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA



Andaluzia kalea 13
☎ 945 28 79 42
GASTEIZ



SANTI
HARATEGIA
URDAITEGIA

Paraguai kalea 17
☎ 945 27 07 90
GASTEIZ

XABIER
AIZPEOLEA
HARATEGIA



FLORIDA AZOKA 2 eta 3
☎ 945 13 24 48
ABASTOS AZOKA 2 eta 3
☎ 945 26 78 97



JOSEBA
HARATEGIA

Paraguai merkatua
10 El Pilar auzoa
☎ 945 25 66 89
GASTEIZ



*gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak*




adaka
madinabeitia



**Floridako
altxorra !**

35

DINKY DAU



Dinky Dau Gasteizen jaio zen duela lau urte, berehala zenbait zuzeneko gauzatzea lortu zutelarik. Ez, ailegatuberriak ziren lagun hauentzat ez zen gutxi izan Ñu eta Uriah Heep talde mitikoen ondoan jotzea. 1998ean garrantzi handiko aldaketak gertatu ziren. Mariano Romero, esperimentzia handiko gitarrista, eta Laura Rodriguez abeslariarekin batera Dinky Dau-ren estiloa berritu zen: heavy klasikoak jabetu zen taldeaz.

Betiko heavy-a argitaletxe baten bila

Aurtengo martxoan Dinky Dau-k bederatzi abestiz osatutako master bat grabatu zuen Arrasateko SHOT estudioetan, emaitza bikaina gertatu zelarik. Batek pentsa dezake bost lagun hauen musika erabat modatik kanpo dagoela. Hala ere, kalitatea dagoenean ez da atxakirik egoten talde bat baztertzeko. Espero dugu argitaletxeak gurekin bat etortzea.

- Topikoa den arren galdetu behar dizuegu Dinky Dau izenaren esangura.
- Dinky Dau Bietnamenko hitzak dira. Hirurogeigarren hamarkadan hantxe gertaturiko borrokan sortu zen esaera bat, hain zuzen. Esanahia? Dinky Dau izena ematen zaie borrokarren atzetikoak pairatzen dituzten estatu batuetarrei, itzulpen zehatza "onetik erabat atetarik" delarik.

- Alde batetik heavy klasikoan aritzen zaretela, eta bestetik azkenengo joerak kontuan hartuz, ez al duzue zuen burua jokoan kanpo ikusten?

Ez. Gogoko duzuna egiten baduzu ezinezkoa da jokoan kanpo sentitzea. Bai, egia da gaur egun Euskal Herrian askoz modakoagoa dela Beri Txarrak edo Su Ta Gar taldeen

Trash-a. Dena den, gure ustez pop eta kaña handienaren artean hutsune zabala dago, eta gu hortxe omen gaude. Zuzenekoetan egiazta daiteke gure musika gehien gozatzen dutenak hogeita hamar urte ingurukoak direla. Nik, teklatu jolea izanik, ez dut batere erraza gaur egungo estiloetara egokitzea. Orain urte batzuk, ordea, heavy taldeetan bazegoen teklatuentsako lekua; Baron Rojo edo Iron Maiden-en garaietatik ari naiz mintzatzen, hain zuzen.

- Ez zarete, bada, talde berritzaile bat.

- Metalaren joera berriak ez dira

"Pop eta 'kaña' handienaren artean hutsune zabala dago, eta gu hortxe omen gaude"

gehien erakartzen gaitxutzenak. Hala ere, gogoko ditugu Koma, hasierako Metallica, Su Ta Gar edota Berri Txarrak taldeak. Nire ustez sentimendua eta erritmoa dauzkaten musika guztiak baliogarriak dira. Bi osagarri hauetariko bat falta izanez gero... Bakailaoa, adibidez, ez dugu atsegiten sentimendurik ez baitu.

- Beti gehiengoaren iritziazen kontra. Pop taldeetan neskak abeslari egotea modan badago ere, zuek, aldiz, heavyan aritzen zarete.

- Lehen gizon bat genuen abeslari, Ingalaterrako Jhon H., hain zuzen. Baina Jhon etxera itzuli zen eta kantari berri bat bilatu behar izan genuen. Ez genuen aurretik erabakita kantari horrek emakumezkoa ala gizonetzkoa izan behar zuen. Laura etorri zitzaigun proba bat egitera eta oso gogoko izan genituen bere ahotsa eta tankera, eta berak atsegin izan omen zuen taldearen musika. Horra hor azalpena. Ez da, beraz, oportunitate kontua.

- Eta orain bederatzi abesti grabatu dituzue Arrasateko SHOT estudioetan.

- Bai, eta pozik gaude emaitza

ona dela uste dugu eta. Grabazioaz Mikel Amnestesia arduratu zen. Teldekideok ordaindu behar izan dugu dena, jakina, eta hori esfortzu handia izan da. Esan behar dugu estudiokoekin harremanak bikainak izan direla. Dena den, grabazioa ezin da dendetan edo kalean lortu. Orain disketxe baten bila gabiltza, eta erantzun onik ez badugu saiatuko gara, zuzenetako diruaz, gure kabuz argitaratzen.

- Orduan, oraingoz behintzat, grabatutakoa ez dago salgai.

- Ez. Zenbait argitaletxeren atee-tan ari gara jotzen, batez ere Euskal Herritik kanpokoetan, gure estiloa hemengo industriarekin bat ez omen

- Hala espero dugu. Zenbait auzo eta herritako jaietan jotzeko deitzen digute. Hala ere, hori gutxi da. Ospetsua izatea beharrekkoa da zuzenekoetan maiz aritu ahal izateko. Bestalde, kanpora ateratzeak diru asko eskatzen du. Gehienetan bidaiaren gastuek kontzertuan irabazitako dena jaten dute. Hori horrela, ez da harritzekoa izaten zuzenekoetan peseta bat ere ez irabaztea. Dena den, taldearen izena entzuna izatea nahi izanez gero horrelakoak egin behar dira, nahiz eta askotan kondizioak ezin txarragoak izan.

- Lehenaldia eta orainaldia bateratzen saiatzen zarete?

- Nolabait bai. Larogeigarren

ra! Nahiago dugu denon artean egin-dakoa bakarkako lana baino.

- Orduan, konposatzeari dagokio-nez, talde lana da nagusi.

- Talde bat gara eta talde lana garatu nahi dugu. Oso garrantzitsua da guretzat abestiak sortzerakoan guztiok zerbait ematea. Taldekideren batek abestiak bukatuta ekarriko balitu beste talde baten kantak bertsonatzea bezala litzateke.

- Zuetariko batzuk aurreko taldeetatik etortzeak, eta baita horien adinak ere, Dinky Dau-ren musikan eraginik al dute.

- Bai. Taldekide batzuk hogeita hamar urtetik gorakoak dira, eta hori isladatzen da gure musika tankeran.



**"Sentimendua
eta erritmoa
dauzkaten
musika guz-
tiak balioga-
rriak dira"**

dator eta.

- "No Quiero Verte" eta "Camino Final" single borobilak dira. Bilatzen al duzue halako abestiak sortzea?

- Gaur egun taldearen helburu nagusia ondo pasatzea da. Dena dela, jakin badakigu gozatuz egiten den musika lagun askoren gustukoa daitekeela. Zaila, oso zaila da talde garrantzitsu bilakatzea, hala ere, aurrearantz joaten ahaleginduko gara beti. Musika mundu honetan zerbait lortzeko aberats baten gogo-koakoa izan behar da, ala dirudun horrek sinetsi behar du zure musikaren bitartez negozio ederra egin dezakeela.

- Zuek zuzenean entzuteko aukera askorik?

hamarkadaren heavy-a eredu badugu ere, oraingo teknikaz eta tresnez baliatzen gara, jakina. Ezin zaio norberaren garaia uko egin. Hitzei dagokienez, gaur egungo gaiak jorratzen dituztela esan behar da. Ulergaitzak diren arren gaurkotasunez beterik daudela uste dugu.

- Zuen garabaketa honetan, heavy-z gain, baita punk-gitarra tarteren bat entzun daiteke.

- Abesti bat egin aurretik ez dugu pentsatzen punk edo funky airea izan behar duenik. Kantak denon gustukoak izaten dira, eta hor agertzen da, jakina, urteetan zehar entzun duguna. Blues edota funk kutsuren bat dagoela? Bai, zergatik ez? Taldekideok atsegiten badugu, aurre-

Bestalde, haiei esker gazteenok 80. eta 70. hamarkadetako heavy-a eza-gutu dugu. Mariano-k Piruleta de Hormigón, BO2 eta Desconocido taldeetan parte hartu zuen, eta Javi UTM-koekin egon zen. Lau talde hauen estiloa eta gurea antzerakoak dira. Egia esan, Javi edo Marianoren ondoan zaudenean erraz asma deza-kezu noruntz eramango zaituzten. Euren bidearen nondik norakoa erabat taxututa dutela esan daiteke.

KONTAKTUA:

45.22.23.22 (Aitor)



Txabi Arnal-Gil



Dinky Dau



HEGOALDE

matrikula zaitez!

Jose Lejarreta 9 behea · tfnoa 945 28 41 96 · 01003 GASTEIZ

*zure
publizitatea
EUSKARAZ*

Tfnoa: 945 22 21 53

SOINUAK DENBORAN ZEHAR

FACES, "A Nod is a Good as a Wink to a Blind Horse"

Ez iezaguzu galdetu diska honen tituluaren esanahia, Ingelesa ez baita gure zerik behinena. Hala ere, jakin badakigu esaldi luze horrek The Faces-en diskarik onena eta mitikoenari izena ematen diola. The Faces; rock and roll talderik handienetariko bat; paradoxa bat boskotearen garrantzia eta ospea bat ez datoz eta. Ez duzu inoiz The Faces izena entzun? Eta Rod Stewart abeslaria ezagutzen al duzu? Eta Ron Wood gitarrista? (Stones-ena, jakina!) Eta Ronnie Lane? Bai? Hortxe duzu, bada, boskote honen bizkarezurra.

The Faces-en karrera oso berezia izan zen. Taldearen lanaz gain, taldekideek bakarkako diskak kaleratu zituzten, hauetariko batzuk, Rod Stewarte-nak batez ere, arrakastatsu gertatu zirelarik. Ez dago zalantzarik, elkarrekin ala banandurik The Faces-ekoak gauza ziren euren proiektu denak abesti bikainez betetzeko.

Eta 1971an "A Nod is a Good as a Wink to a Blind Horse" izeneko rock and roll lezio bikaina kaleratu zen; bederatzi abesti zuzen, bizi eta fresko, eta bederatzi arteen "Stay With Me", klasiko bat, Ron Wood-en edo Stewart-en zuzeneko guztietako kanta ezinbestekoa. Baina diska honen bitxiak ez dira hemen agortzen. "Miss Judy's Farm"-etik (diska sendo zabaltzen duena) "That's All You Need" abestiraino

(azkena eta gure ustez, gitarra lana dela eta, onena) diska hau indarrak beterik dago. Egia da; The Faces ez ziren inoiz single sortzaileak izan, baina ozen esan daiteke euren disketan, eta batez ere oraingo honetan, ez dagoela ezta minutu huts bat ere.

1976. urtean Stewart-ek taldeari utzi zion, eta Wood bosgarren rolling stone bilakatu zen. The Faces izeneko rock and roll trena gelditu zen betiko.

 Txabi Arnal-Gil



ARABAKOAK

TRIKITIXA KONTRAIRO TALDEA.

Hala Bedi Irratiak antolatutako jai bati esker asmoa jaio zen, 1992an munduratu, bi urte beranduago ZULOA liburudendaren eskutik maketa arrakastatsua kaleratu, eta maketaren eskutik kontzertu ugari zertu. 1995ean diska argitaratu zuten, ordutik hona Euskal Herriko festa guztietan ezinbesteko bilakatu zaizkigularik.



SIN PERMISO.

Iker, Iñaki, Kimetz eta Iker Bigarrena. Sin Permiso. Punk Rock-ean aritzen den laukote gasteiztar bat. Maitasuna, mina eta gorrotoa. Zapore gazi-geza. Estreinako maketa kalean jadanik. Asmorik? Euren abestiak Euskal Herri osora zabal-tzen saiatu, eta gero? Gero gerokoak.



POESÍA VIOLENTA.

Gaztetxean Tapia ta Leturiaren ondoan gauzatu zuten lehenengo zuzeneko orain sei urte. Harrezkero taldea finkatu zen, eta 1996.an San Martin-eko rock lehiaketan garaile gertatu zen. Ez dute batere gogoko euren musikari izena ematea, ezta mugatzea ere. Hori horrela, Poesia Violenta ezagutu nahi izanez gero entzun duela hiru urte grabatutako maketa.



 Txabi Arnal-Gil

GASTEIZ

DIBUtec

Landazuri, 7 - Tel. 23 30 01

- Material escolar y de oficina
- PAPER BIRZIKLATUA
- FotoKopiak
- kolorez eta Zuri-Beltzean

Arte ederretarako..
behar duzun
guztia


PAPERTEGI TEKNIKA

BAR
KLAKÉ



KUTXA, 2
TFNO.
143883

zuk nahi duzun herria.



eusko
alkartasuna



Zurekin bateginik.

Hasian hasi Gure Irratia bere Etxearen Jabe

500.000,00 libera - Gure Irratia, Zure Irratia

Mila urte gehiago euskaraz Iparraldean

Deiadarra

Ikusiz Euskara guztiz beherakadan dela, irratia bide bakarra da gure hizkuntzaren zuzenean entzuteko egunero.

Nahi baldin badugu Lapurdin euskara entzun datorren mendeen, premiazkoa da ditugun transmisio tresna eskasen indartzea.

HELBURUA
12.500.000 pza

Zure emailtza :

EUSKADIKO KUTXA, Paseo de Colon IRUN : 0590052667

Gure Irratia : P.K. 8452 F - 64184 BAIONA

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

106,6 FM



Errege Atea, 9 • GASTEIZ
Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85



arropa eta osagarriak
HEMEN DUZU ESPERO ZENUENA!
Pintore kalea, 23 • Tel. 945 28 18 38




**JANTZI
ETA
OPARIAK**

Aiztogile kalea (Kutxi), 27
Tfnoa: 945 26 07 10
GASTEIZ

UDABERRIA
elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33
GASTEIZ



JATETXEA

Aiztogile kalea (Kutxi), 26 - tfnoa: 945 28 81 47
GASTEIZ

**EUSKAL LABELA
LASAGABASTER**

harategia eta urdaitegia

**Gasteizko
haragitegirik zaharrena**

Errege atea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

XIV Pilotarien Batzarra

Pilota maitatzen dutenek badute zita bat Errioxako Naiara herrian. Aurten hara joango dira Pilotarien Batzarraren XIV. edizioa ospatzera. Hona hemen egitaraua.

EKAINAK 17, osteguna

19,30etan: Inaugurazio ekitaldia Naiarako Kultura Etxean.

20,00etan: Eduardo Gomez eta Fernando Castro jaun-
nen hitzaldi-solasaldia.

Gaia: "Pilotaren egungo egoera".

EKAINAK 18, ostirala

**Eskola arteko eta beteranoen finalak Udal
Pilotalekuan.**

Gauetz: bideo emanaldia San Miguel plazan: "Retegi
eta Titinen arteko lau eta erdiko finala".

EKAINAK 19, larunbata

11,00etan: Bisita gidatua Donemiliaga Kukulara:
Yuso eta Susoko monasterioak, barniz fabrika.

17,30etan: Profesionalen pilota partiduak Udal
Pilotalekuan.

EKAINAK 20, igandea

10,30etan: Ongi etorria Udaletxean.

11,00etan: Meza Santa Maria katedralean.

12,30etan: Urteko Batzarra Kultura Etxean.

Kontzertua eta dantzariak Hiribidean.

14,30etan: Anaiarteko bazkaria San Fernando
Hotelean.



ASTEBURU AKUATIKOA ZUAZAKO IRLAN

Ekainak 11, 12, 13 (Ostiraletik igandera)

Prezioa eguneko eta pertsonako: 1.850 pta. Bi egunak:
3.700 pta. Jatorduak eta ur ekintzak barne.

Ur ekintzak: Arrauna, Wind Surf, Piraguak, Pedaletak.
Izena AEKko bulegoetan eman.

Euskarazko irakaskuntza

Ukatu ezinezkoa da aurrerapauso garrantzitsuak eman ditugula euskararen normalizazioan irakaskuntzaren arloan, eta denok ezagutzen ditugu. Begibistakoa da, era berean, gurasoen sentsibilizazioaren esparruan ere aitzinera egin dugula, gero eta guraso gehiago baitira beren seme-alabentzat euskarazko irakaskuntzaren hautua egiten dutenak. Baina ukatu ezinezkoa da, baita ere, hutsune handiak ditugula euskarazko irakaskuntzan eta orain hogeitaz urte geneuzkan perspektibak ez direla bete.

Lehen hezkuntzari dagokionez, ereduaren sistema horrek litogin handiak ditu, A ereduak ez du euskalduntzen eta B eredu gehienek ere ez. Nola euskaldunduko dute, D eredu-ko ikastetxeetan ere Normalizaziorako Plan Integralak edota Euskaraz Bizi bezalako egitasmoak martxan jarri beharra badago eskola hori euskaraz biziko bada, eta eskola horietako ikasleek euskara normaltasun eta jarioz hitzegingo badute. Badakigu eskolak soilik ezin duela euskararen normalizazioaren zama guztia jasan, eskolaz gain beste esparru asko daudela lan egin beharrekoak, baina badakigu, baita ere, eskolak garrantzi handia duela euskalduntzeko prozesuan. Ereduena, beraz, osoki berplanteatu beharrekoa da eta ez adabakiak jartzekoa, Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saila A ereduarekin datorren ikasturterako egin behar duen bezala. Ezer esan beharrik ez dago G ereduaz, jakina, ezta Derrigorrezko Hezkuntzaren Ondorengo irakaskuntzan dauzkagun arazo larriez ere, arazoak, bai material egokiaren aldetik, baita, eta nagusiki, irakasle asko dagoelako euskaraz ez dakiena.

Pisuzko gaia gogoetarako, eta ez da kasualitatea sortu berria den GUNEAK eztaba-aidarako lehenengo gai bezala horixe hautatu izana.

Hau guztiea kontutan hartuta, EHE, IA, Ikasbatuaz, LAB eta Sortzenek maiatzean zehar eta ekaina bitartean antolatutako Euskal Irakaskuntzaren aldeko nazio ekimenetan parte hartzera gonbidatzen ditugu herritar guztiak, denon artean eraiki dezagun benetako Hezkuntza Sistema Euskalduna.

IKASBATUAZ ELKARTEA

Udako Euskal Unibertsitatea 27. UDAKO IKASTAROAK

Ekainaren 30era arte eman ahal izango da izena aurtengo Udako Ikastaroetan parte hartzeko. Miarritzeko eta Iruñeko ikastaroetan matrikulatzeko prozedura bera da eta toki bertsutan egin daiteke. Kontuan izan, alabaina, matrikula-epeak desberdinak direla.

MIARRITZEN: Ekainaren 1etik Ekainaren 25era bitartean.

IRUÑEAN: Ekainaren 1etik 30era bitartean.

Araba: Axular Liburudendan, Arka, 11 • Gasteiz. Tel. 945 13 25 06
e-posta: bulegoa@ueu.org

MIKO
izozkiak

GORETTI
ILEAPAINDEGIA

Hedegile kalea (KORRE), 14
(San Migeleko pasabidea)
Tfno: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ

plató
TABERNA

Zaldieran Plaza, 10 • Tfno.: 945 22 65 64



BITORIANO (Zuia • Araba) TEL. 945 43 00 73

LA RIOJANA
jatetxea

bokatak,
on egin! pintxoak,
kazuelatxoak

Aiztogile kalea (KUTXI), 33 tfnoa. 945 25 02 39



Txeroki



**HONAKO BULEGO HAUETAN BADAGO EUSKARAZ HARTUKO ZAITUEN LANGILERIK**

BULEGOAK	ZERBITZUA	Helbidea	Tfnoa.
Udaletxea	Udal informazioa Argibideak eta Erregistroa Errolda Funtzio Publikoa Gazteen Argibide Bulegoa Idazkaritza Prensa Bulegoa Zerbitzu Orokorrak	Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1	010 16 11 88 16 11 06 16 11 41 16 13 30 16 13 20 16 13 37 16 13 08
Udala (Dato kalea)	Borondatezko Diru Bilketa Zergen Gestioa	Dato kalea, 11 Dato kalea, 11	16 16 68 16 11 33
Udala (S. Prudentzio kalea)	Gizartegintza Arkitektura Ingurugiroa	S. Prudentzio kalea, 30 S. Prudentzio kalea, 30 S. Prudentzio kalea, 30	16 13 44 16 13 01 16 11 20
Udala (Etxanobetarren etxea)	Emakumeentzako Zerbitzua Euskara Zerbitzua	Sta. Maria kalea, 11 Sta. Maria kalea, 11	16 13 25 16 15 22
Udal artxiboa	Argibideak	Unibertsitateko ibilbidea, 1	16 14 99
Etxebizitza eta Hiri Berrikuntzarako Udal Eragintegia	Argibideak	Espainia plaza, 1	16 12 87
Kultura	Argibideak	Goiuri jauregia (Villa Suso)	16 12 70
Hezkuntza	Argibideak	Frai Zacarias kalea	16 12 16
Ekonomi Sustapena		Frai Zacarias kalea	16 12 11
Gizarte Etxeak	Hegoalde Iparralde Judimendi Lakua Aldabe	Alberto Shommer kalea, z/g Zuberoa plaza, z/g Sefarad plaza, z/g Etxanobetarren zidorra, z/g Eulogio Serdan Pasabidea, 2	16 18 80 16 17 50 16 17 40 17 17 81 16 19 19
Montehermoso Kulturunea	Argibideak	Frai Zacarias kalea, 2	16 18 30
Europa gizarte-etxea	Argibideak Biltzar eta Turismo Zerbitzua Kontzientzia Eragozpena Kirola Europar Mugimenduaren E.K. Elkarte eta Bolondresentzako Z.	Gasteiz hiribidea, 85 Gasteiz hiribidea, 85 Gasteiz hiribidea, 85 Gasteiz hiribidea, 85 Gasteiz hiribidea, 85 Gasteiz hiribidea, 85	16 12 31 16 12 61 16 36 91 16 15 61 16 15 57 16 19 48
Udaltzaingoa	Administrazioa Antolakuntza	Agirrelanda, 8 Agirrelanda, 8	16 14 58 16 16 60
Turismo bulegoa	Argibideak	Dato, 11	16 15 99

CASA DE CULTURA

Diputazioa
Euzko Legebiltzaria

KULTURA ETXEA

KULTURA ETXEA

Hitza Kultura Etxean

ekainak 3, osteguna

*Ipuin kontalaria
Joxemari Karrere*

arratsaldeko 18:00etan

ekainak 10, osteguna

"Lur ezpalak"

Manex Erdozainzi-Etxarten olerkiak.

Kantari eta jokolari: Frantxo Cousteau,
M Hélène Estecahandy, Txomin Héguy.

Musikari: Karlos Gimenez.

Taula zuzendari: Francis Basterct.

arratsaldeko 20:00etan

Floridako ibilbidea, 9

tfnoa.: 945 18 19 44 · faxa: 945 18 19 45

01005 GASTEIZ

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa